Gran triunfo del consejero saliente Dermit (RPR) reelegido con el 80% de los votos.

Resultados socialistas: presidenciales 29'8%, legislativas 27'4%.

Mauleon

Roger, reemplazante del consejero saliente M. Goux es elegido en la primera vuelta por 65 votos de la mayoría.

El PC (10'3%) mantiene los resultados del 76 y el alcalde socialista de Mauleon Lougaron saca tres puntos más (38'8%).

Resultados socialistas: presidenciales 50'6%, legislativas 52'35%.

St. Pierre de Irube

Michel Berger, presidente de la asociación de elegidos para un departamento vasco logra un discreto resultado (13'4%). Sorpresa en cambio con los socialistas ya que el poco conocido Elisslde supera el 30%. Buen resultado del comunista Ortega (10'9%).



El conservadurismo en Iparralde ha vuelto a florecer con las elecciones cantonales.



Después de las Cantonales, Michael Inchauspe, candidato de la derecha, se estará frotando las manos.

La revista «Enbata» analizaba de esta forma en un editorial estos decepcionantes resultados:

«Retorna con fuerza al país vasco la arrogante derecha. Desde hace quince años, el bastión más reaccionario del Hexágono francés parecía irse erosionando tras las sucesivas elecciones.

Las presidenciales y legislativas de la última primavera constituían un paso lleno de esperanzas en este cambio de mentalidades. ¡Demasiadas esperanzas!

Porque puede pasar y se puede admitir que el domingo último el país vasco ha reproducido en definitiva la ola de conservadurismo que hoy vuelve a invadir a Francia.

Puede admitirse que la reacción se haya aprovechado en cierto modo de la abstención voluntaria del mundo abertzale.

Lo peor sin embargo, es que hay que constatar cruelmente que nuestros «notables» antivascos han rehecho sus resultados fabulosos de 1976 y derribado como en ninguna parte la esperanza de mayo del 81.

Lo peor es que hay que constatar cruelmente que la participación electoral señalada como excepcional en todo el hexágono, aquí se convierte en auténtico record. En 1976 hubo en el país vasco un 31'40% de abstenciones. Hoy han caido al 28'52% mientras la media en el Estado francés es de 31'57%.

¿Cómo se pueden explicar una situación tan deprimente siendo así que jamás el país vasco se había beneficiado tanto de diversos medios de comunicación que podían haber acabado con tantos lavados de cerebro de la derecha? Porque lo cierto es que un buen número de radios, periódicos y revistas se han esforzado con un planteamiento ejemplar y militante en asegurar una contrainformación original...

Incluso si lo que se cuenta es con recoger los frutos a largo plazo, no hay más remedio que plantearse las cuestiones que surgen ahora. Y no hay más remedio que reconocer que el bloque del antivasquismo y del conservadurismo no solamente ha reculado, sino que acaba de ganar un importante terreno.

Inchauspem el jefe de orquesta hoy tiene que frotarse las manos. El y sus comparsas Ithurralde, Duboscq, Mondiboure etc.

Gure elkarrizketa proposatzeko deitu diogularik, mementu onean deitzen diogula esan digu, bi eguneko bakantzak hartu berriak zituela eta. Argitxu bost haurren ama izanez, mediku anestesista bezala lanean ari baita. Gainera, han hemen, euskal giroko batasun anitzetan partaide aktibo ere bada.

Elkarrizketa honetan zehar, Argitxurekin batasun ezagun batzuen sorrerei buruz berri interesanteak ikasiko ditugu. Orainarte ez genizkiuan gauza politak!

Behin eta berriz aipamen egin digularik, hemen, bereziki seinalatu nahi dugu, emazte kondizioaz duen preokupazionea deigarri gertatu zaigula berarekin hitzegitean.

Bestalde, deigarri gertatzen da, emazte honek bizitzaren aurrean hartuak dituen konpromiso eta buruhauste guziekin agertzen duen alaitasuna eta lasaitasuna.

Argitxu Noblia

Sortzaile euskal munduan



"Hay una cosa de mi padre que se me quedó grabada para toda la vida y es que por encima de todo está el hacer y crecer hijos para mantener la vida"

PUNTO y HORA.: Non sortua zara?

ARGITXU NOBLIA.: 1942-an Angelun sortua naiz. Munduko bigarren gerla denboran, hain zuen.

P. y H.: Eta zure familiakoez hitzegingo al diguzu?

A.N.: Nere aita medikua da. Afrikara lanera joaten zen. Ama, aldiz, hemen gure ardura eramaten gelditzen zen. Zortzi haurretarik lehena naiz. Ikusten duzutenez familia haundia ginen. Amarekin ere, aitona eta amona egoten ziren. Eta azken hauen presentziak inportantzia haundia izan du neretzako nola nere aukeretan hala nere bizitzan. Amaren aita hori Nerac-ekoa zen sortzez. Lot et Garonne departamentukoa, alegia. Amona, berriz, Angeluko familia zahar batetekoa zen. Familia hortan denak medikuak ziren. Uste dut inportantzia haundia izan duela neregan familiako aspekto honek. Nere aitonak Baionako ospitalean ejerzitzen zuen bere medikuntza. Honela, berak muntatu zuen ospital hortan pediatriako lehen zerbitzua. Bere familiakoak ez ziren katolikoak, gorriak baizik. Hori bai, humanista zen. Grekoa eta latina irakurtzen ziteun. Idazleak ikertzea maite zuen. Poesia ere gogoko zuen. Euskaldunei buruzko lantxo bat ere hasia zuen. Medikuntza mailan, «La société médicale du Pays Basque» sortu zuen. Eta garai hartan modan zeuden ideiei jarraituaz, euskal arraza ikertzen hasi zen. Geroago, berriz, Euskal Herriko elizak ikertzen hasi zen, nahiz eta bera mezatara ez joan. Hori zela eta, gu ere berarekin, Ipar Euskal Herriko herri guzietan zehar ibili ginen. Enetako inportantea izan zen, zeren Angeluko ezik Euskal Herri guziko ginela ikasi bait nuen.

P. y H.: Halere, aitaren influentziarik izango zenuten?

A.N.: Esan dudanez, aita Afrikan egoten zen eta ondorioz kolonialismoa eta bere inguruak ongi ezagutu zituen. HOna etortzean, gauza horietaz asko mintzatzen zen. Hango irakaskuntza, ekonomia, eta giroa luze aipatzen zizkigun. Ni zaharrena eta neska nintzelarik denak entzuten nituen. Nahiz garai hartan ez nekien zer nahi nuen, esaten zen guzia interes haundienarekin jarraitzen nuen. Orduan esaten zigunetik, betirako gelditu zait bizia beste gauza guzien gainetik zegoela, eta biziarentzako haurrak egitea eta haurrak altxatzea. Ene kasoan horrek anitz markatu nau. Neronek bost haur egin baititu. Haren lehen preokupazioa bizia zen eta ez morala edo ezkontza onak egitea. Zerbaitengatik zen mediku! Gainera, ama, aitona, ugazama, osaba eta alaba ere medikuak ziren.

P. y H.: Afrikan non egoten zen zure aita?

A.N.: Cote d'Ivoireé-n egon da ia bizi guzian. Oraindik ere hirurogeita hamasei urtekin beti han da. Izugarrizko esperientzia du, noski. Neu ere hamabost egun egon nintzen han, urte batez.

P. y H.: Amaren errolaz zerbait gehiago hitzegin nahi al duzu?

A.N.: Ama beti gurekin egona da Angelun. Orduan, ez ginen konturatzen ene amaren bizitzaz. Naturala iruditzen zitzaigun. Baina, orain, ohartua naiz bizitza gogorra eramana duela. Beti aitarik gabe, bere zortzi haurrekin! ama etzen euskara zekiena, baina, ikasi egin du eta guri ere ikasten lagundu digu. Lehenik Philippe Oyhambururekin eta gero Pierre Lafittekin. Uxtaritzera konferentziak edo mintzaldiak entzutera

joaten ginen. Miarritzen, berriz, polizia zen batek ematen zizkigun euskarazko kurtsoak. Oso gizon jatorra zen. Euskara arras maite zuen. Denbora hartan, euskara irakasten bakarra zen. (Parre egiten dugu).

P. y H.: Zure aitak euskara familiatik jasoa al zuen?

A.N.: Bai, bere amarengandik hartua zuen. Gero, bistan da, landu egin du. Edozein gauza irakurtzeko preparazioa euskaraz. Lantxo batzuk ere egin izan ditu. Euskal Herriko mapa bat egin eta izen guziak euskaraz eman zituen. Denbora hartarako gauza berria zen.

P. y H.: Eskolaz zer gogoratzen duzu?

A.N.: Nere lehen eskola, Angeluko seroren kolejioa izan zen. Oso gazte nintzela hasi nintzen. Horrela, hamabost urte nituela, batxilerra pasatu nuen. Serora guziak seroraz jantzita ibiltzen ziren. Guk berriz uniforme beltz bat genuen. Gero, ikasleen artean, bi modutakoak ginen: seroragaiak eta gainetikoak. Eta seroragaien alboan, oposizio bat bezala egiten genuen batzuek. Nik uste dut oposizioan nintzela. Kolejio katoliko batetan ginenez, mezatara eta otoitzera joatzea behartuak geunden. Ni externa nintzen. Bakar batzuk baizik ez ginen horrela. Erretiro espiritualak, katexima, konfesioak, komunioak eta abar bagenituen. Halere, ez dut uste tristeak ginenik, usatuak ginen bizitza hortara. Gainera, errogatibak eta prozesioak zirelarik, pozik joaten nintzen. Oso politak atxematen balitz nituen.

P. y H.: Euskarak lekurik ba al ditzuen kilejioan?

A.N.: Etzen ezer egiten! Halere, serora euskaldun bat ba zen eta ene aitak galdegin zion astean bi, hiru oren neri euskaraz irakasteko. Errekreazionetan izaten zen!

Serora hori Mehainekoa zen. Ba dakizue Mehaine ijitoen herria da. Harekin kantuak, irakurtzen eta idazten ikasi nituen. Gogoratzen naiz Narbaitz kalonjearen «Katalinen gogoetak» landu nituela serora horrekin.

Kolejiotik. hamabost urtetan atera nintzen eta azken urtea Miarritzeko lizeoan egin nuen. Han sartzean, nehor ezagutzen ez nuenez, lagunak egin beharra ukan nuen. Euskaldunak aukeratu nituen. Gracieene Tafernaberri eta Claude Haurlouchet, hain zuzen. Nik Sciences expérimentales eta Claudek Matématiques élémentaires egiten ginuzten. Urte hartan, biok, «prix d'excellence» bakoitzak bere sailean izan genuen. Hori langileak ginelako zen, noski. Nik uste dut euskaldun bezala zerbait ginela demostratu nahi izan genuela.

P. y H.: Unibertsitatean ere egona zara, zer oroitzapen duzu?

A.N.: Gero, Bordelera joan nintzen, medikuntzako estudioak egitera. Lehen urtean, seroren kolejio batetan pausatu nintzen. Han jarri ninduten etxekoek, bakarrik ez ninduten utzi nahi. Eta ni ere konforme nintzen, zeren, oraino ez nekien bizitza zer zen. Egun guziz fakultatera joaten nintzen eta lo egitera kolejiora itzultzen. Han, euskaldun batzuk ezagutu nituen: Kristian Etxaluz eta Donapauleko giroa, hain zuzen.

Nola familia onekoa eta katolikoa nintzen, egun batez, apez bat heldu zitzaidan eta Bordeleko euskal estudiante katolikoak biltzen lagun niezaion eskatu zidan. Esan nion ez nekiela nola hortan lagun nezaioken; ez nuela indarrik euskaldun lagun

"Mi madre no sabía euskara, pero lo aprendió y nos ayudó también para que nosotros lo aprendiéramos"

Cuando era estudiante en la universidad de Burdeos confeccioné una lista de estudiantes euskaldunes. Tres años más tarde esa lista sirvió para convocarles a una reunión y de ahí surgió 'Enbata"

artean lan hori egiteko. Geroztik, apez hori, l'abbé Zabalo deitzen da, Villa Pia izena duen Baionako kolejio hortan, Hazparneko kolejioan eta abar egona da. Horrekin gizon inportante bilakatu dela esan nahi dut. Ba, ordutik, ene etsai izan dut.

Denbora hartan ba zen problema bat euskaldun ikasleen artean. Anitzek, festa besterik edo ez zuen egiten. Bereziki, mutilak moskortzen ziren, emazteekin joaten ziren, eta abar. Eta bistan da, oso gaizki ikusia zen gauza hori. Nik, egia esan, ez nuen ikusten nola geldiarazi zitekeen guzi hori. Geroztik ere segitu du. Halere, sail hortaz interesa banuen eta ene gaitatik eta enetako ikasleen artean sartuaz giroa ezagutzea erabaki nuen.

Horrela, euskal ikasleen lista bat egiten hasi nintzen. Izenak eta zuzenbideak bildu nituen. Ezeren helburu gabe. Hori bai, konportamentu hortarako arrazoirik ba zela jabetu nintzen.

P. y H.: Denbora hortan neska estudianteak anitz al zinateen?

A.N.: Mutilak baino askoz gutxiago, baina, ba ginen batzuk.

P. y H.: Nola jarraitu zenuen Bordeleko esperientzia hori?

A.N.: Inportantea Kristian Etxaluzekin egindako ezagutza da.

Bigarren urterako, biok elkarrekin apartamentu bat hartzea deliberatu genuen. Horrela, ene bizian lehen aldiz, autonomo eta libro izaten hasten naiz. Urte guzia lan asko egin gabe pasatu nuen eta examinetan huts egin nuen ekaineko aldian. Gero urdaran, lan egin eta errekuperatu banuen ere. Kristianekin, lehen esan dudan bezala, Donapauleko jende anitz ezagutu nuen, eta jendeekin ibiltzen eta mintzatzen ikasi nuen. Urte hartan depresio bat ukan nuenez, ene amak Lekeitioko familia lagun batengana igorri ninduen. Eta han, bizitza ez zen batere berdina. Lagunak egin nituen. Eta euskarari dagokionez, bizkaiera ezagutu nuen. Hurrengo udaran Oinatira joan nintzen. Beste udara batetan, berriz, Heletara. Baita Zuberora ere. Eta Zuberoan, ikasle denborako lehen lan seriosa egin genuen lagun batzuk. Ikaslegoa aztertu genuen. Baita ezkontzari buruzko konportamentuak ere. Ikertze hortan gauza anitzetaz ohartu ginen. Adibidez, Zuberoan ba zirela ikasleak baina ez zirela herriratzen. Eta ezkontzari buruz, mendiko gizon gehienak eskapatzen ari zirela, emazterik mendira ez zelako joaten. Ondorioz, etxaldeak husten ari zirela. Hor ere jende anitz ezagutu dut. Gauza anitz ikasi dut.

Bestalde, Etxamendi eta Larralde kantatzen hasiak ziren eta horien etxera joan ginen Kristian eta biok magneto batetan beren kantak hartzera. Gero, Bordelen estudianteei entzunarazten gienun. Kanta zahar batzuk ere bildu ginuzten Ezterenzubin eta abar.

Orduan, alde batetik medikuntza egiten nuen eta bestetik, euskal munduan geroz eta gehiago murgiltzen ari nintzen. Batetik medikuntza oso ofiziala eta fijatua, eta bestetik, euskal mundua, kasik debekatua, eta beti burrukaz betea lotzen nituen. Pentsatzen dut ez dela batere goxo biak kontziliatzea. Eskizofrenikoek ere ba dituzte bi alde horiek. Gainera aitortu behar dut batzutan gaizki sentitu izan naizela. Ba dakizu, medikuntza egitean ospitalean



"Enbata' surgió de una comida organizada en Sare en 1960"

frantses artean, giro apartatu batetan aurkitzen nintzen, eta aldi berean, ene gogoa Euskal Herrian, euskaran, gure herrietako bizitzan zebilen.

P. y H.: Guzi honetatik zure esperientzien kanpoa berritzea anitz maite duzula konkludi genezake.

A.N.: Egia da. Bordelen marginatu batzuen munduaz ere interesatu nintzen. Legehausle komunak deitzen direnen artean sartu nintzen. Eta esperientzia hortatik zera atera dut: gazte horiek ez zirela galdu batzuk. Beren arazoa errorik eza, oinarrizko gauzen eskasia zirela jabetu nintzen. Geroztik ene pertsonal jokabiderako ondoriorik ere atera izan dut: haurrei hezikera aroan erro horiek ematen saiatu behar dela. Bestalde, Bordele bezalako hiri haundi horietan denetariko jendeak egoten dira eta jende guzi horiei helburu bat ematea oso zaila da.

P. y H.: Eta ikasle munduan etzenduten nolabaiteko euskal elkarterik?

A.N.: Beno, esana dut estudianteen artean izenak eta zuzenbideak bilduaz lista bat egin nuela. Ba bigarren urtean, Sarako Herrian, bazkari bat muntatzeko baliatu nuen. Ikasle asko bildu ginen. Hor ziren besteak beste, Ximun Haran, Michel Burukoa, Jean Fagoaga eta abar. Euskaltzaleak ziren ikasleak, hain zuzen. Eta bazkari horren ondorio Enbata deitu zen batasun bat sortu zen.

P. y H.: Hori interesantea. Orduan, ikasleetatik sortu zen lehen Enbata?

A.N.: Bai. 1960-ko urtean egindako bazkari batetatik. Eta batasun hori definitu behar zela eta estatutu batzuk egin ziren. Eta horko puntu batzuekin ez nengon ados.

P. y H.: Zer punturekin ez zinen ados?

A.N.: Puntu horietariko batek emazterik ezin zela batasun hortako lehendakari bilakatu, esaten zuen.

P. y H.: Hori ez genekigun

A.N.: Bai, bai, horrela da! Ez da esaten baina horrela da! Ez naiz gogoratzen nork proposatua zuen puntu hori. Onartu zela bai gogoratzen naiz. Biltzar hortan gizonezkoak baitziren gehienak. Konkretoki, ni horregatik ez nintzen izan lehendakari, lehendakari ordezko baizik.

P. y H.: «La loi salique» aplikatzen zen, orduan?

A.N.: Bai, bai! Horrela batasun hortako lehen lehendakaria Manu Arretz izan zen.

P. y H.: Zure estudiante lista haiek bazkari bat eta Enbata ekarri zituzten, orduan?

A.N.: Bai, halere, esan behar dut bazkari hori muntatzen ni bezain arduradun izan zela Ximun Haran. Bestalde, bazkari hori muntatzekoan ez genuen ezertan pentsatu, ez genion helburu bat eman. Baina, ondorio hori eman zuen. Nik horrela egiten ditut gauza asko. Mugimendua jartzean, zerbait ateratzen da. Hori da ene esperientzia.

Haseran EMBATA idazten zen batasun horren izena. M batekin. Gaur ezaguna den Enbata, ba dakizue, N batekin idazten dela. Baina, aldakuntza horrek ba du bere historia.

Gure batasuna martxan jarri genuen. Bilkurak egiten ginuzten. Bulego bat muntatu genuen. Konferentzia edo mintzaldiak ere hasi ginuzten. Koral bat ere bai. Baina, bi joera zeuden mugimenduaren barrenean. Bata, festa eta bazkarietara guzia mugatu nahi zutenena zen. Bestea, politika lanera pasatu nahi zutenena. Honela, batzuk aldizkari

bat ateratzea lortzen dugu. Baina, kontenidua ez dute guzi guziek onartzen. Ikasleen izena erabiliaz aldizkari politiko bat egin zela zioten batzuek. Eztabaida hori konpontzeko Euskal Erakustokian biltzar historiko bat muntatu genuen. Ximun Haranek aldizkariaren konteniduarekin ados ez zirenei proposamen bat egin zien: Berak bere kontura eta bere izenean jarraituko zuela aldizkari hori argitaratzen eta hortarako Enbata N batekin izendatuko zuela. Horrela batasunarekin bereztua gelditzen zela. Besteak kexatu ziren. Burruka haundi bat eman zen.

P. y H.: Eta zu oraino beti Bordelen zinen, noski?

A.N.: Bai. Beti ikasleen taldean ari nintzen. Eta garai hartan ere, Bordelen, Euskal Etxe bat irekitzea pentsatu genuen. Hortarako «Euskaldun biltzarra» deitu batasun bat zegoelarik, haiei elkar lanean proiektu hori egitea proposatu geniegun. Euskaltzaleen Biltzarraren izenean Joseph Legasse eta Ikasleen Biltzarraren izenean ni elkartu ginen. Baina, hortan ere bi joera agertu ziren, Legasse jaunak Euskal Etxe horren zuzendaritza eta kudeakuntza dirua ezarriko zutenena bakarrik izan behar zela zion. Nik, ordea, ikasleen biltzarraren izenean diru ezartzaileen eta kontsumitzaleen arteko zerbait izan behar zela nion. Hor ere burruka bikainak egon ziren. Azkenean Legassen aldekoek irabazi zuten. Geroztik, Euskal Etxe hori bizitza gabea da.

Bestalde, garai hortan haurdun jartzen naiz. Eta handik laster ezkontzea deliberatzen dut. Halere, ikasketak finitu arte han jarraitu nuen. Eta orduan, Euskal Herrira itzuli nintzen.

P. y H.: Zuk baduzu medikuntza arduratik egindako lan bat: 20 ans de suicides au Pays Basque. Zure medikuntza finitzeko egin tesia al da?

A.N.: Ez! Nere tesia «Les matodynies» gaiaz egin nuen. Aurrez zuk aipatu duzun hori «Mémoire pour l'obtention du Diplome de Médecine Agricole de Tours» izan zen. Lan hau egiteko Baigorri eta Bordeleko Unibertsitatean profesor zen Begouignan-i bere zuzendaritza eskatu nion. Ez zuen onartu!

P. y H.: Zergatik sortu zitzaizun gai hori aztertzeko interesa?

A.N.: Nik ez nuen interes berezirik haste batean. Hain zuzen, gero bere laguntza ukatu zidan mediku profesor horrek problema hori ba zegoela eta aztertzearen interesa azpimarratu izan zidan.

Eta kuriosoago dena, handik lau urtera Parisko Kongreso batetan zegoela, hotel batetik bere burua bota zuen. Geroztik, pentsatu izan dut, erabaki gabe, sekulako problemak izan behar zituela. Euskalduna izanik, bere bizitzan baztertu egiten baitzuen. Bestalde, katoliko zen eta pratikan izugarrizko kontradizioak ba zituen. Hitz batetan, problema horiek aztertzera errefusatzen zen.

P. y H.: Noiz egin zenuen urkatzeari buruzko lan hori?

A.N.: 1975 eta 1976 urteetan prestatu izan dut. Eta 1977-an pasatu dut Laborantzako mediku diploma ukaiteko. Garai hartan, Hazparnen ari nintzen eta interesa nuen titulu hori biltzeko. Gainera, gustatuko litzaidake laborantzari buruzko medikuntza sozial batetan lan egitea. Baina oraingoz ez dut hortarako plazarik lortu. Esan behar da medikuntzako buruak, oso eskuindarrak

"Muchas veces he sido tachada de burguesa por ser médico y ese tipo de clasificaciones no las admito así porque sí"

direla eta aparteko kasta bat egiten dutela.

P. y H.: Ikertze hortatik zer ondorio nagusi atera zinuzten?

A.N.: Hasteko, Iparraldean bi jendetza mota daudela. Bata euskalduna eta bestea kanpotarrena. Gainera, kanpotarrak kultura mailan jakintsuago agertzen dira. Bestalde, urkatzeak gizonezkoetan emazteetan baino gehiago ematen dira. Emazte bakoitzeko hiru gizon urkatzen baitira.

Hemen ditut zifra batzuk. Nik aztertu ditudan hogei urte horietan 316 gizon eta 122 emazte urkatu izan dira. Lan hori estadistika eta informatika bitartekoan laguntzaz burutu nuen. Hain zuzen, Bordelen Mimiague jaunak estadistika arloa bilakatu zidan. Eta aipatu gizon hau, Bergouignan profesorearen hiloba bat da.

Nere analisi hortan faktore asko sartzen dira.

Honela, lehen laratzak: Kultura problema, hizkuntzarena, Frantziako bazter izatearena, ekonomiarena hartzen ditu.

Orduan, diskriminazioneko elementu garrantzizkoenak kultur-hizkuntz eta etno-geografiko sailetakoak direla agertzen da.

P. y H.: Azkenean, elementu kulturalak dira, noski?

A.N.: Bai. Baina jakintsuen goi mailetako azterketetan elementu horiek ez dute kontsiderazione haundirik. Horri erantzun bezala, adibidez, melankolia arazoetan, hormona arazoak eta abar, ondare genetikoaren elementuak, hitz batetan, garrantzi haundiagoko direla esango dizute. Nik ez dut horrela ikusten baina....

P. y H.: Zer gehiago ageri da?

A.N.: Bigarren Laratzak: Familia problemak, hots, ezkondu gabe, haur gabe, eta gainera laborari izatea, adibidez, kontutan hartzen ditu.

Hirugarren laratzak: Gizonezko ala emakumezko izatean dauden diferentziak aztertzen ditu.

Laugarren laratzak: Aurreko hirien garbitasun haundiago ala txikiagoa, hots, parasito berezien presentziaren neurria kalkulatzen du.

Bistan da lehen hiruak direla inportanteenak.

Finitzeko zera ateratzen dut: Urkatzeak jendetzaren naturaren arabera ezberdinak direla. Halere, oraingoz ezin liteke gaia itxi. Aitzitik pentsatzen dut gauza inportanteak atera litezkela ikertze horretatik.

P. y H.: Zure ikerlanen emaitzetatikat beste ezer esatekorik izango al zenuke urkatzeari buruz?

A.N.: Urkatzea nik lotuko nuke kultura problemarekin, hots, funtski kultura denarekin. Neretzat gizon —emazteen arteko harremanak zerikusi haundia dute. Orainarte tradizioari lotuegi eraman dira gauza horiek. Beharbada, tradizio batzuk ez zaizkigu gehiago komeni. Ohiturak direla eta gizon-emazteen artean etendurak badira. Azken funtsean, urkatze horien sakonean maitasun arazo haundi bat dago. Ba du loturarik mintzairakin eta ekonomiarekin ere. Ekonomia giltzak denenak berdin ez direnean, hots, denek ardura berdinak ez dituztenean, arazo haundia da. Nik ene familian hori ikusi izan dut. Ene aitak hirurogeita hamasei urtekin guzia berak atxikitzen du. Sekula ez digu ezer utzi ez bere emazteari eta ez haurrei.

P. y H.: Dena dela, ezpairik gabe, funtsezko arazo bat da.

A.N.: Bestalde, hori ikertu ez bada ere, esan behar da, Iparraldetik lan bila kanpora joan direnen artean ere

Uno de los puntos aprobados en los primeros estatutos prohibía explícitamente que las mujeres pudieran ocupar el cargo de la Presidencia de la asociación"

"La práctica de la medicina, por una parte, todo muy oficial, y por otra el mundo euskaldun semiprohibido, no eran dos facetas muy fáciles de conciliar"

urkatzeak eman izan direla. Lotura bat egin beharko litzake emeigrazio horrekin ere. Orain jendea kontzientzia hartzen hasia da eta pentsatzen dut gauzak aldatuko direla. Gazteriak hemen gelditu nahi du batetik. Eta bestetik, bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek beren izaera, pertsona eta herri bezala, defenditzen hasten dira.

Argitxu, Iparraldeko Seaska, ikastolen elkartearen sortzaile ere izan zara. Hemen, beste behin ere argi ageri da zure bizitzan aurrez aipatu dizkiguzun bi joera oposatu horiek mugitzen jarraitu duzula. Bizibidea, medikuntza duzu, eta gogo bidea, euskaldungoa duzu. Aipatuko al diguzu Seaskaren sorrera hori?

Esana dut biziari oso atxikia nagoela txikidanik. Ondorio xinple bat besterik ez da, orduan, emazte izanik haurrak egitea. Bost haur edukiak ditut. Horietarik hiru ezkondu eta laster, segidan. Hazitzen zoatzelarik, inguramen frantsesa zutelarik, frantsesten ari zirela konturatu nintzen. Baina, beren pertsonalitatea euskalduna bilaka zedin, erro batzuk ematea beharrezko zela. Horien artean eta funtsezko euskara irakasti nahi nien.

Baina nola egin? Arazo horrekin nebilela, egun batean Eustakio Mendizabalekin mintzatu nintzen. Berak berehala esan zidan Lazkaoko andereino bat etorria zela iparralde honetara hemen zerbait egiteko asmoarekin, baina ez zuela ezer atxeman eta Parisera joateko asmoarekin zegoela. Orduan, berarekin mintzatzera joan nintzen eta Libe Goñirekin aurkitu nintzen. Ene haurrekin lan egiten hasteko proposatu nion. Ene etxean hartuko nuela soldatatxo baten truke. Onartu zuen eta handik bizpahiru hilabetera ene lagun batzuk ohartu ziren ene haurrak euskara mintzatzen hasiak zirela, eta beste haurrak baino irekiago bilakatzen ari zirela. Zorionez jeloskorrak bihurtu ziren eta denon artean zerbait muntatzea proposatu zidaten. Horrela, lokal baten bila hasi ginen. Lehenik Cordeliers karrikan aukitu genuen. Geroago Miarritzen. Azkenean, Arrangoitzeko alkateak, Garat pintorearen bidez, toki xarmant bat egiazko ikastola egiteko eskaini zigun. Gero, 1968-ko apirilean batasun bat egin genuen eta Seaska izena eman genion.

P. y H.: Zureetatik aparte nortzuk ziren haserako haurrak?

A.N.: Ez naiz oso ongi oroitzen, baina, beste aldeko batzuren haurrak ziren: Monzonen hiloba Muñoarenak eta abar. Zortzi haur ba ginuzten.

Lehen biltzar nagusian lehendakari izendatu ninduteen. Jean Hiriart idazkari eta Jokin Etxeberria diruzain, zuzendaritza osatzen genuen.

1970-an Donibane Lohitzunen bigarren ikastola bat ireki genuen. Gero, Baionan eta abar ireki ziren. Iparraldeko lehen andereinoa Marikita Tambourin izan zen. Irekitzeko zailena, eta nik neuk gehien maite izan dudana, Mauleko ikastola izan da. Gogoratzen naiz, hortarako, Rogert Idiart ikustera joan nintzela. Ez nuen atxeman. Orduan, Mauleko kolejiora zuzendu nintzen han bilatuko nuela pentsatuaz. Apez batek errezibitu ninduen eta Roger Idiart ikusi nahi nuela agertu nion. Beste gabe, ikastola bat irekitzeko lanean ari ginela agertu nion ezagutzen ez nuen apez horri. Eta biziki ongi hartu ninduen. Gero jakin nuen apez hura Gregoire Eperre zela. Ba,

orain esan behar dut, Eperrek izugarrizko lana egin zuela ikastola Maulen munta zedin. Maleruski, handik laster hil egin zen. Hori izan da ene bihotzeko ikastola.

Gero piskanaka piskana aurrera joan dira. Eta oso urrats inportantea izan zen lehen maila muntatzea. Orain, berriki, bigarren maila ere egin dugu. Baina nik neuk bost haur nituela eta, lehendakaritza uztea pentsatu nuen. Hortan jokatu zuen ere senarra ikastoletan langile izateak eta bera lanean ez trabatu nahiak.

P. y H.: Zuek hemengo ikastola irekitzean hegoaldeko ikastolen informazioarik ba al zenuten?

A.N.: Oso gutxi. Ba genekigun ba zirela baina ez asko gehiago. Nik hegoaldeko egoeraz gehien ezagutzen nuena politika zen. Errefuxiatu batekin ezkondua bait nintzen.

Nik ikusten nuena zera zen, herri hizkuntza bakoitzak bere eskola behar zuela irauten jarraitzeko. Oinarrizko teoria bat zen enetako. Orduan, nik horren beharra sentitu nuelarik ene haurrendako egitea pentsatu nuen. Halere, pratikan jartzea ez zen erreza hemengo baldintzetan. Haurrentzat bezala gurasoentzat arazo haundiak sortzen dira.

Honela, azken urte hauetan ikastolek hartu duten militantzia pisuarekin, gurasoak militante azkarrak izan behar dira beren haurrak ikastolara eramateko. Ez naiz segur bide ona denik. Haurrak ere burruka hortan kutsatzen baitira. Nik neretzat egun batez ahal bada ikastola haurrentzako arazo gabeko bilaka dadila desiratzen dut. Edozein gurasok inolako kezkarik gabe bere haurra eramango lukeen ikastola ikusi nahi nuke. Baina, bestalde, ikastola herriak dauzkan burruken parte bat denez, ez dut ikusten nola bilaka daiteken kezka gabeko.

P. y H.: Ez al zaizu iruditzen ezarrita dagoen egoera bat aldatzen jartzeak dakarren barreneko baldintza bat dela?

A.N.: Ba dakit kontradizione hori ba dela. Alde batetik pentsatzen dut jende hanitzek maite duela bere mintzaira, baina ez direla deliberatzen beren ikastolara bidaltzera gero manifestazioetara joan behar delako; kantaldiak eratu behar direlako; diru arazoak konpondu behar direlako. Gurasoentzako oso gogorra da. Gainera, ikastola barrenean ere, askotan gauza gogorrrak gertatzen dira bilkuretan. Batzuk euskaraz bakarrik egin nahi dutela eta guraso batzuk baztertuak sentitzen baitira. Orduan, pentsatzen dut barreneko erradikalizazioa ez dela hain ona. Guretzako neurriak behar ginuzteke. Kanpoko etsaientzako gogoratsuna bai baina barnean lotura haundiagoak behar ginuzteke. Tolerantzia gehiago, alegia. Gure artean eta bereziki kultur arloan tolerantzia behar dugu. Enetzako ikastola haurrak eskolatzeko da eta hortik ez litzake atera behar. Gainera, denak beti ez dira maila berean egoten. Orain militante sutsu diren ba-

Nada cuenta de extraordinario Argitxu de sus primeros años. Fue una niña proveniente de «una familia bien y católica» como ella misma la califica, que realizó sus primeros estudios en un colegio de monjas, para más tarde pasar al liceo de Biarritz donde su marginación, como euskaldun junto a Claude Arlouchet, le llevó a trabajar con ahínco y lograr un diploma escolar.

No se introduciría sin embargo en un campo euskaldun y lo que más tarde llegó a ser abertzale, hasta comenzar sus estudios de medicina en la universidad de Burdeos, destino prácticamente obligado para todos los estudiantes de Euskadi Norte.

En esta universidad conoció a Christiane Etxaluz, de cuya mano llegó a conocer los círculos estudiantiles de Euskadi Norte, preocupada por el cariz que iba adquiriendo cierto comportamiento de los estudiantes de Euskadi Norte en Burdeos. Argitxu relata que era más un ambiente de fiesta y borrachera que de estudio el que existía. Decidió integrarse más entre los estudiantes para tratar de explicar este comportamiento, lo que le llevó a entablar relación con muchos estudiantes de su propio país.

De estos contactos estudiantiles surgiría incluso la asociación «Enbata» y posteriormente incluso la revista. Argitxu cuenta que confeccionó una lista de estudiantes vascos y tres años más tarde esa lista sirvió para convocar a los inscritos a una comida de la que salió la asociación «Enbata», con «m» en un principio. No tardó sin embargo en aparecer dos sectores perfectamente diferenciados en esta asociación: quienes mantenían una actividad más de fiesta comida y folklore por una parte y otro sector de cariz más político. Por aquella época se publicó también el primer «Embata» –todavía-, pero ante la protesta de un sector de la asociación, bajo la acusación de que «se hacía uso de la asociación estudiantil para otros fines» unos de los miembros, Ximun Haran, decidió publicar por su cuenta la revista que ya pasó a lla-

tzuk, lehen, etzuten ezer egiten. Normal dira holako gauzak, baina onar dezatela orain beste batzuk beharbada akituak izatea.

Bestalde, ni mediku naizela eta burges bezala klasatua izan naiz. Eta klasifikazio horiek beste gabe ez ditut onartzen. Zer nahi gisaz horrela da bizia.

P. y H.: Gose grebetan ere mediku laguntzaile izaten zara.

A.N.: Bai. Hemen oraindaino egin diren gose greba denetan egon naiz mediku bezala. Hastapenean, ez genekigun zer zen gose greba bat. Orain esperientzia haundia dugu. Kasik formalitate bat bihurtu da.

Baina hortan ikusi dut, emazte nintzelako edo, batzutan ez nintzela onartua.

P. y H.: Medikuntza nola bizi duzu emazte zarenez gero, eta batez ere gizonezko medikuekin?

A.N.: Ni anestesista naiz. Eta kliniketan anestesista gehienak emazteak gara. Orduan zirujanoek oso normala atxematen dute hori. Batzuek ez dute pentsatzen ere gizonezko bat anestesista izan litekeenik. Zergatik? Zeren eta anestesista zirujanoaren menpeko delako. Orduan, medikuntzan, gizartearen gaineatiko arloetan bezala emaztea segregatua dago.

Bestalde, mediku baten lana eta gaineatiko eguneroko bizitza ongi moldatzea ez da erreza. Batik bat medikua emazte denean. Zeren gizonezkoak mediku direnean emaztea beti etxean dute familiaz eta etxeaz okupatzeko. Guzi hau dela eta talde batek lantxo bat prestatua dugu: «La misogynie dans la santé» gaiaz. Arlo hortako gizonezkoen konportamentuak ikertzen ditugu. Frantziako estatuan ba da emazte medikuen elkarterik.

Euskal medikuen artean ere biltzar batzuek egiten dira. Azkenik Gipuzkoan parte hartu nuen. Baina laster ohartu nintzen zuzendaritzan ez zela emazterik eta horren zergatia galdetu nuen. Ihardepesna ba al dakizue zer izan zen? Hortaz sekula ez zutela pentsatu, baina gauza seios bat egiten ari zirela. Heuretako batzuekin eztabaida bat eduki nuen. Ikas gauzak nola diren! Azkenean profesionalki ere ez gara onartuak.

Zeren ez dugu profesional promoziorako ahal berdinik. Emakumeak haurrak egin, etxeaz okupatu eta lan egin konbinatu beharra baitugu. Gizonak, aldiz, lan profesionala beste egitekorik ez dute. Gero, beren aukeran uzten zaie gaineatiko denbora zertan gastatu: kongresoetan, politikan eta abar. Ondorioak bistan da zertzuk diren: gizonezkoek atxikitzen dituzte postu inportante guziak.

Hori falta zaigu emazteoi. Erabakitzeko postak atxeman behar ginuzteke. Zeren azken funtsean nork erabakitzen du emazteari eta berari bakarrik dagozkion gauzetan ere, hots, ezkondu ala ez ezkondu, abortatu ala ez, eta abar luze batetan? Gizonek erabakitzen dute. Hor dago gakoa!

marse «Enbata».

Muy pocas veces se ha hecho público también que la primera asociación «Embata» prohibió que ninguna mujer ocupara el cargo de presidente de la asociación, por lo que Argitxu pasó a ser vicepresidente.

No sería sin embargo ésta la única labor que Argitxu desarrollara en Burdeos. «Nos dedicamos también —explica— a una experiencia de tipo social. Nos introdujimos para realizar un trabajo en grupos de delincuentes habituales. Fue muy interesante, añade, conocer las posibilidades que en una gran ciudad como Burdeos tiene un niño de convertirse en delincuente si no se le ataja a tiempo».

También durante esta época realizó otros trabajos, uno de ellos referido al alto porcentaje de suicidios que habitualmente se registra en Zuberoa. Argitxu mantiene que «son factores culturales y políticos los que generan este luctuoso fenómeno en Zuberoa, mientras la medicina oficial defiende la tesis basada más en los aspectos emocionales.

Concluidos sus estudios, Argitxu regresó a Euskadi Norte, ya casada con un refugiado de Euskadi Sur y con un niño, que no fue más que el primero de cuatro más. Un hecho que Argitxu nos relató varias veces a lo largo de la entrevista fue la marca que dejaría en ella la teoría heredada de su padre de que «por encima de todo está el hacer y crecer hijos para el mantenimiento de la vida», fruto de ese principio son los cinco hijos.

Y fruto de esos cinco hijos es también, en parte la existencia de la primera ikastola de Euskadi Norte y con ella la Asociación Seaska.

Convencida de la necesidad de que sus hijos aprendieran euskara contrató a una andereño, por referencias del ya mítico Eustakio Mendizabal, «Txikia», y posteriormente el ejemplo fue seguido por otros padres de niños que terminaron por fundar la primera ikastola en Arrangoitze, en abril de 1968.

Otoitz liburua eskuetan, Ustaritzeko Seminarioaren kalostran itzulika zebilen elkarrizketara heldu ginenean. Elkar agurtu eta berehala bere gelarako bidea hartu genuen. Gelako atea irekiaz han zeuden bi kaderetan eseritzeko esan zigun. Bera, hirugarren kadera baten bila zioala eta laster zetorrela adieraziaz. Santiameneko batean egin zuen bere joan etorri hori. Bizkor eta argi ageri da. Gela, Seminario batetan ohi denezkoa da. Hitz batetan, sobrioa. Lababo bat, mahai bat, liburu zenbait eta opari bat izana dirudien pitxar eder bat ertz batean. Eguraldi ezin hobea dugu. Gelako leihoak kontsulatu hiztegia irekiak daudelarik argi bizia sartzen da.

Pierre Lafitte

82 urte emankor euskarari dedikatuak

Maite Idirin
Jokin Apalategi

PUNTO Y HORA: Hasteko, esanen al diguzu non sortu zinen?

PIERRE LAFFITTE: Luhosoan sortua naiz. Etxeak Salaberri zuen izena. 1901-ko maiatzaren 21-an jaio omen nintzen. Nire aita Baigorriarra eta ama Ustariz-tarra ziren. Biak euskaldunak, nahiz eta aitaren aldetik etorriz kaskoinak ziren. Aitona eta birraitona goardak ziren. Birraitona Bordeletik jinaz Urepeleko Iturralde andere batekin ezkondu zen. Garai hartan, Urepele Alduderen hauzo bat zen. Nire amaren aita Jatsukoa zen eta ama Milafrankatarra.

P. y H.: Aita eta ama euskaldunak zinuztenez, euskara heuretarik jaso zenuen, orduan?

P.L.: Ez da hain xinplea gauza hori. Izan ere, nire ama biziki eria izanik, bularrak gaizki baitzituen beti, sortu eta biharamunean Senperera igorri ninduteen Elisabeth Hirigoien deitzen zen amainorengana. Ez zekien frantsesik. Euskaldun purrukatua zen. Eta berarekin egona naiz hiru urterarte. Gero, amonarengana, Ustaritzera, eraman ninduteen. Noizetik noizera bakarrik ikusten nituen aita eta ama. Eta lehen eskolak amonaren etxetik Ustaritzen egin nituen.

P. y H.: Haurtzaro latza tokatu zitzaizun?

P.L.: Esana ez da guztia. Oraino bost urte nituela gauza bitxi bat gertatu bait zitzaion nire aitari. Esan dezadan, Baionan eskolatua, Brigadierra zela. Eskolak bukatzean, ez omen zekien zer egin eta bost urterako soldadu joan omen zen. Soldaduska horren ondoren aduanetan sartzea lortzen zuela. Baina, 1906an izugarrizko kalapitak ziren Frantzian eta bereziki erlisioneari buruz. Eta urte hortan, ene aitak makur haundi bat egin omen zuen. Arraila batean eskale bat hila atxeman omen zuten. Eta hura elizatik pasatu eta ehortzi behar zela eta dirurik ez zelako txantreak ez zuela harentzat kantatu nahia gertatu omen zen. Orduan, ene aitak berak kantatuko zuela txantrearen lekuan agertu omen zuen. Bere brigadier jantziekin besti eta trankil joan omen zen elizara. Eta baita kantatu ere. Musikaria zen ene aita. Klarineta eta txirribita (bibolina) jotzen zekizkien. Eta beraz, kantatu zuelako eskandala izugarria egin omen zen. Zeren Errepublikak horrelakorik ez baitzuen permititzen bere enplegatuentzat. Horren ondorio, Belgikako mugarat igorri zuten kastiguz.

P. y H.: Egoera hori luzazko gertatu al zitzaion?

P.L.: Ene aitak, horrela kastigaturik ikustea, bere goardagoa utzi izan nahi omen zuen. Baina Ustaritzeko merak ez zuela horrelakorik egin behar esan omen zion. Hauzapez horrek, Baionan deputatu zen Legrand, adiskide omen zuen eta hari zerbait lagun zezan eskatu omen zion. Hauek ez zuri ez gorri, tarteko ziren. Joan zen beraz aita Belgikako mugara. Han, fitsik egiteko ez zuela ikustean, esamina batzuk prestatzea pentsatu omen zuen. Horrela, hortarako behar ziren liburuak bildu eta bi hilabetez administraziorako aurkeztu zen. Errezibitua izan zen. Orduan, libro utzi zuten eta berriro etxera sartu ahal izan zen. Orain, Urrunan, «receveur de douane» izendatu zuten. Eta Urrinan aita, ama, ene anaia eta ni lehen aldiz biltzen ginen elkarrekin.

P. y H.: Eta familiako giroaz zer oroitzapen duzu?

P.L.: Ez genuen bizitzeko aukerarik izan. Zeren 1909-an ene ama hil baitzen eta bi hilabeteren buruan aita ere. Orduan, aitona eta amona arras zahar zirela eta ene amaren anaia baten etxera Donapaulera eraman ginuzteen. Donapauleko ene izeba berriz biarnesa zen eta ez frantsesik ez euskararik ez zekien. Orduan, etxean beti biarnesez mintzatzera behartuta geunden.

Bestalde, eskolarekin ere izan genuen arazorik. Ene osaba-izebak seme bat eta alaba bat zituzten. Ba, haiek eskola librora joaten ziren. Baina ene anaia eta ni Errepublikako enplegatu baten seme ginenez,

"Mi madre murió cuando yo tenía ocho años y al de dos meses le siguió mi padre"



tokatzen zitzaigun diru laguntza hartzen jarraitu nahi bagenuen, eskola laikora joatera behartzen ginuzteen. Nik, halere, laster galdu nuen, seminario txikian sartu bait nintzen.

P. y H.: Zer adinetan sartu zinen?

P.L.: Hamaika urtetan. Baina, ez nintzen aise sartu, zeren etxean ez baitziren batere bero kanporat igortzeko. Eta bestalde, erretoreak ere ez nituen sufritzen. Biziki zaintsu nintzela zioen. Ene anaia, aldiz, ona atxematen zuen. Goxoa izanik, belaunikatze horiek biziki òntsa egiten zituela zion erretoreak.

P. y H.: Baina, halere, sartu zinen?

P.L.: Nolakoak egin behar izan nituen horretarako! Baionako izeba bati idatzi nion gertatzen zena kontatuaz. Ez etxekoek, ez erretoreak, nehork ez zuela benetan hartu nahi ene asmorik, eta hori izigarri zela, eta ez nekiela zer bilakatu agertzen nion. Orduan, izeba horrek Belloceko superiorari aurkeztu zizkion ene gutunak. Eta superiorak irakurtzean galde hau egin omen zion: Esanen al didazu nor den Itorroitzeko apeza? Eta izebak ihardetsi: uste dut Dassance deitzen dela. Beranduko bokazio bat da. Soldadu bezala zazpi urte egin zituen eta gero apezteko deliberoa hartu. Frantsesik ez zekien eta fite ikasi behar izan ditu frantsesa eta gaineatikoak ere.

Irakurri ditut haur horren gutunak eta ene irudiko harri bat bezala da. Kaska gogorra da. Ba daki zer nahi duen eta buruan zerbait sartzen ba zaio zaila izanen da hori kentzen. Guk, berriz, horrelako jendea, borondate-duna behar dugu. Ez da erreza izanen irakasleentzat baina ez dio axolarik.

Zenbait egunen buruan, gure erretoreak gutun bat jaso zuen Belloc-etik. Honela zion: «Jakin dut Pierre Lafitte deitzen den mutiko bat duzutela. Ene ustez zihur da bokazioa baduela. Pentsatzen dut datorren urrirako honera bidaliko didazula».

Orduan, erretorea ene etxera jin zen. Eta heldu orduko, non da Pierre? galdetu zuen. Arbolaren gainean jolasten gebiltzen. Etxekoei eni deitzeko agindu zien. Heltzen naiz eta erretoreak esaten dit. «Nola egin duzu Belloc-eko superiorari idazteko? —Nik ez dakit nor den gizon hori. —Ez ezazu gezurrik esan. —Ez dut gezurrik esaten. —Gauza kurios da, zeren Belloc-eko superiorak bokazioa duzula esaten dit eta nolaz jakinen du zuk ez badiozu esan? —Ba nik ez diot esan. —Orduan Domenaineko edo Arrueko apezekin egongo zinen? ez, ni ez naiz haiekin hortaz mintzatu. —Zoaz, zoaz jolastera, esan zidan».

Zenbait egunen buruan, ene izebaren gutun bat hartzen dugu, Belloc-eko superiorearekin egon dela kontatuaz. Egun batzuren buruan, erretorea heltzen da gure etxera eta osabari esaten dio: «Eugen, elkarrekin erabaki beharrean gaude mutiko honekin zer egin. Nik ene aldetik ez dut uste aparteko on denik. —Zergatik ez? dio ene osabak. —Ez du osagarririk. Arras txikia da eta zer nahi duzu horrekin egitea. Bost urteren buruan hila izanen da. —Orduan ene osabak ihardesten dio: eta jaun erretora gurekin hemen gelditzen bada zer gertatuko zaio? —Berdin, berdin hilko da —esaten dio erretorak—. —Orduan ene osabak ihardesten du: Ba, han hil edo hemen hil berdin balio du eta han hiltzeakin plazer piska bat eginen diogu. —Erretoreak begiratzen nau eta esaten dit: oraindik herriko eskola utziko duzu eta nire etxera etorriko zara, latina erakutsiko dizut.

Hori ikustean, gure herrientsa samurtu zen. Zeren pentsatzen bait zuen ni «certificat d'études» lortzeko aurkez nezakela. Urteen buruan nehor hortarako presentatu gabe bait zegoen gure herritik. Zazpi urtez egon zen eni eta ene familikoei agurrik eman gabe.

P. y H.: Honela seminarioan sartu-

"Mi primer artículo fue en francés puesto que no sabía euskara"





"Yo gozaba de cierto prestigio tras la salida de los alemanes, porque había colaborado antes con la Resistencia"

rik ikasketa seriosagoak hasi zinuzten.

P.L.: Gerla denbora zen (munduko lehen gerlarena). Batxilerraren lehen zatia pasatzea lortu nuen. Orduan, bi alditan egiten zen. Bata erretorikaren ondoan eta bestea, filosofiaren ondotik. Ongi pasatu nuen. Nahiz eta gazte bat izan. Biziki kontent nintzen. Hamabi urteko mutikoa dirudi nuen galtza laburrekin. Ondoko urtean, 1918-an filosofia egitera sartzen gara eta pazkoz apezpiku jaunak Baionarat biltzeko deitzen gaitu apez-gai guztiak. Seminario haundia berri berria zen eta beldur zen armadak hartuko zuela zaurituak han ezartzeko. Honela filosofo guztiak bildu ginen gure erakasleekin. Han ginela sartu ziren gerlariak eta hoiei esker harrigarrizko bakantzak ukan genituen.

P. y H.: Eta politikaz arduratzen al zineteen?

P.L.:Hain zuzen, orduan, gerra ondoko lehen bozak ziren. Eta pentsa, zuriek eta gorriek, biek nahi zuten bentzitu. Egun guziez irakurtzen nuen «Le courrier de Bayonne» eta haren bidez politikari gostu hartu nion. Hartaz hartua nintzen eta egun guziz ene karneta betean hartzen nituen notak. Egun batek Garat radikal sozialista heltzen da Ustaritzera eta eskolan egiten du bilkura bat. Harat joan nintzen. Nahi nuen ikusi nola pasatzen ziren gauza haiek oro. Etxera joatean, ene lehen artikulua idatzi nuen eta «Le courrier de Bayonne»-ra igorri. Biharamunean, agertu zen. Hori 1919-ko urtea zen. Frantsesez idatzi nuen (euskara ahantzia bait nuen). Ez nuen sinatu. Halere, egunkariaren buruzagiak letra xarmant bat igorri zautan ontsa zela eta kuraia emanez.

P. y H.: Orduan, esan genezake zure kazetari bokazioa hor piztu zela?

Pero, incluso dentro del campo cultu-

→

eta hemendik bost, sei urteren buruan, nik hola erran gauza bat ateratzen ahal didazue eta agertu kontradizione bat. Zaila duk agertuz geroz... eta gero ba duk «l'intolérance», behar bada momento batez hala izan nauk ni ere besteentzat... bainan egun batez antzerki bat izkiriatu duk eta antzerki horrek arrakasta ba duelako hire lagun bilakatzen nauk, ikaragarri sinpatiak biltzen dituk, zoragaria duk, eta memento batez, hire kontzientziaren arabera, edo uste dualako, edo influentzi batzu ukan ditualako, halako duda bat ukan dualako hire biatan edo hola, orduan kondenatua haiz. Hori ez diat gehiago onartzen ahal, pertsona bat, edo militante bat, edo idazle bat, urteak eta urteak iraun eta lan egin ondoan behar dik jujatu, ez eta hola, brau, ona dela edo txarra dela etiketa eman.

Beste gauza bat: hire hartan egoitea, lan bat jarraikia egitea, hori duk inportanta neretzat, eta gero «Aihen Ahula» izendatu badut liburu bat, ez zen pentsatu gabe, oreren buru nihaurk aitortzen diat ahul bat naizela, beraz pentsatzen diat besteek ene ahultasun hori doi bat bederen konprenitu behar luketela.

P. y H.: Irauteaz mintzatu haiz eta hain xuxen euskal antzerkiaz behin erran duk «iraun, beti iraun duena eta iraun nahi lukeena». Iduri likek Ipar EH dela aihen ahul hori eta gure borrokaren xedea irautea...

D.L.: Izigarri inportanta duk irautea, zeren jendeen aintzinean ere, hire etsairik handienaren aintzinean, irauteak indarra emaiten dik. Ikusiz holako mutikoa, neskatoa, holako gizona, anderea, beti hor direla, orduan nahiz eta gurekin ez ados izan, onartuak bederen izanen gaituk, onartzen die, ba ez gara akort, ez gara ados honekin bainan ez da nor nahi, beti hor da.

P. y H.: Euskal Herriarentzat ere berdin gertatzen da, ez? zerenta paltoak bildu ahala beti hor gaituk...

D.L.: Hori duk. Gu sortu aitzin jada, Pierre Duhour eta horiek guziek erraiten zitean ba hemendik 50 urtetan euskara fini izanen da, hilen da, eta egin die ikaragarrizko lana, aste guziz artikulu bat "Herria"-n eta beste mila gauza. Hori duk ororen buru. Beti ari gaituk euskara hilen dela, hiltzen ari dela eta hori erraiten dutenak hain xuxen, Lafitte bat bera, ez duk egundano holako langilerik sortu munduan. Nik erraiten diat, behar bada 50 urteren buruan hilen dela euskara... eta ez diat egundano orain bezainbat lanik egin! Eta... 50 urteren buruan, ba, mintzatuko gaituk berriz!

ral, hablar de Daniel Landart es fundamentalmente hablar de teatro, el teatro de «Aihen Ahula» aquella primera obra que llegó a congregar 1.500 espectadores en Lazkao y que luego, según relata un tanto ensombrecido Daniel, ya en el teatro de hoy no llega a reunir apenas el medio centenar.

¿Las causas? «Hay gente –explica– que no es capaz de asimilar más que slogans políticos y otros, en cambio, que ya no se conforman con eso, pero ni unos ni otros poseen una verdadera sed de cultura». Lo cierto es –añade– que este descenso cultural se da a nivel europeo, ya que grupos consagrados de teatro que antes llenaban los locales de actuación ahora logran un éxito cada vez que consiguen una asistencia que roce el centenar de espectadores.

En la búsqueda de esas nuevas formas del teatro que identifiquen en ellas al pueblo vasco, a su cultura, y que vuelvan a lograr la audiencia que tuvieron e incluso incrementarla, Daniel afirma estar experimentando estos tres últimos años. «Tratamos de hacer un teatro que desarrolle menos la palabra y más las posibilidades de la expresión corporal, puesto que con la primera no hacemos más que dificultar la captación de la obra a todos aquellos no euskaldunizados».

A pesar de todo, Daniel, en su relato, no deja de entrever sombras de pesimismo cuando realiza afirmaciones como: «Este pueblo ha mostrado una gran energía cuando se ha tratado de desarrollar la lucha política, sin embargo, no hemos sido capaces de generar una labor a largo plazo».

Sin embargo, este hombre que busca más la expresión de todas sus contradicciones, sus esperanzas, sus razones, que la presentación de teoría coherente sobre su propia experiencia, que defiende su tipo no duda en finalizar, tras mostrar su contrariedad porque la televisión sustituye a los agentes familiares que antes transmitían el euskara, con lo que el euskara se ve sustituido por el francés como lengua de comunicación habitual, tras esta contrariedad, decimos, el argumento del baserritarra, del cashero indígena, según el cual «es importante permanecer, aguantar». Mientras al menos suceda esto, no tendrán más remedio que reconocernos, podrán estar de acuerdo o no, nos odiarán o no, pero estamos ahí. Hay grandes hombres que auguraban un final cercano para el euskara y sin embargo, nunca dejaron de trabajar por nuestra lengua... yo mismo no niego la posibilidad de que el euskara desaparezca dentro de cincuenta años, sin embargo, trabajo en el tema más que nunca, y dentro de cincuenta años... ya veremos lo que sucede.

Heleta eta Iholditik zehar Donapaleu bidean, Bitiñe, herri txiki bat da. Hor, autobidearen bázterrean, dagoen etxe batetan bizi da Etxamendi familia. Berak dioenez, heurek erosi zutenean, borda bat omen zen. Orain, berriki, ongi konpondua, daukate. Etxe aitzina eta sarrera egiten duen aldea, zurezko balkoi eder batek berezten du.

Etxe atarira hulbildu ginaneko, bi etxe-zakurrek beti zaunka ari zirela, inguratu ginuzteen. Ez ginen ausartzen mugitzera. Agertuko da etxeko norbait, geniogun. Ez genuen gehiegi itxaron beharrik izani laster, han agertu zen Jeny, etxeko anderea. Zakurrak ixilduarazi eta urrunduarazi zituen. Xarmantasun haundiz agurtu ginuzten.

Etxera sarrerazi eta egongelara pasatu ginuzten. «Jar zaitezte, berehala hemen izanen da Eñaut», esan zigun. Han, heuren etxean zegoen adiskide baten seme gazte bat igorri zuen gure etorreraren berri Eñauti adieraztera.

Egongela, antzinateko muebleekin jantzia dago. Gero Eñautek agertuko zigunez, horietariko zenbaitek historiarik ere ba du. Gelaren erditsuan, beheko su-toki bat, neguan atsegin izan daitekeena. Aski luze eta zabala da gela.

Luze gabe, Eñaut heldu zen. Ezagunaren agurrez agurzen gara. Baserriko lanetan ohi diren jantziz jantzia dago. Bost axola zaio. Are, fier, da bere egoeraz. Bizitzen asmatu duenaren orguilu sonatuenak aipatu ondoren, gure galderei ihardesteko prestatzen da.



Maite Idirin
Jokin Apalategi

Enaut Etxamendi

Kantari baino zerbait gehiago

PUNTO Y HORA: Non sortua zara?

ENAUT ETXAMENDI: Ni Ezterenzubiko mendian sortua naiz. Gure herrian bi erreka nagusi gurutzatzen dira eta horien haranetan etxeak barreatzen dira. Ene sortarana Basa Xaharre deitzen da eta Behobi eta Pagaltzetarekin baserri talde baten osatzaile da. Gainera, eskola ere berezia genuen guretzat. Ene etxeak Mendi Buria zuen izena. Bizibidea, behiak eta ardiak, eta nekazaritza piska batek egiten zuten. Zazpi haurride ginen bizirik. Txikitan hila zortzigarrena. Ene haurtzaroko oroitzapen nagusienak, munduko bigarren gerratearenak ditut. Hegoaldeko gerraren oroitzapen piska bat ere ba dut. 1935-an sortua bait naiz. Eta muga mugan bait ginen. Kainoien burrunba aditzen genuen, ortzia bezala zen.

P. y H.: Zure aita-amak nongoak ziren?

E.E.: Ene aita Mendi Buriako semea zen. Etxamendi familia, nere ustez, Mendibetik ateratzen da. Han zen Etxamendia izeneko hortz-haitz bat. Hemen, mendia lau hortz-haitzetan zatitzen dugu. Goi goran bortia dago. Artzainak egoten diren lekua. Gero, apalagoan, etxamendia deitzen da. Horien lekuan lehenago oihanak ziren, pagoak, haritzak eta abar. Baina XVIII garren mendean horiek esplotatzera jende asko etorri zen gure tokietara. Olagizonak baziren. Piskanaka, ikatza egiteko egurra eramanik mendi guziak garbitu zituzteen. Krisi ekonomiko bat egon zen eta ardiak ezartzen hasi ziren. Suaz, mendiak garbitzen zituzteen. Eta oihanetako jendeetatik artzain etxeak sortu ziren. Hain zuzen leku horrek Zuberoan ere etxamendia izena du. Hori da mendia, etxetik korritzen ahal dena. Etxetik joaten, hala zara ardiak, behiak, behorrak ikustera. Gero, bada behetartea. Mendiaren beheragoan izaten da. Behetarteak dira herriko lurrak. Baina etxaldeen artean erreglamentazione oso serioak izaten ziren lehenago horien esplotaziorako. Kolektiboak bait ziren. Eta gero igitak dira. Hauek landutako etxeen ondoko lur pieza txiki batzuk ziren. Zuberoan iruritak deitzen dira. Hauek landutako etxeen ondoko lur pieza txiki batzuk ziren. Etxahun Irurita hori, Trois Villes itzuli dute. Baina ikusten duzutenez, alukeria bat da. Zeren irurita, errekolta edo iruri tokia da. Igitan egiten den tokia. Orduan, ene izena Etxamendi Mendibetik dator. Iruñean ere badira. Eta ama Ezterenzubiko Ezterengibel hauzokoa zen. Ene ama Gezanburu deitzen zen.

P. Y H.: Zure haur denbora nolakoa izan zen?

E.E.: Nere haur denboran gauza batek markatu ninduen: oso gaixo egon nintzela anka batetik. Kasik hilda. Eta. gerra hasi zen urtean, ospitalera eraman ninduten. Eta hilzorian egon nintzen. Horrekin oroitzapen zenbait kristalizatu zen. Konparazione, ospitaleko gelatik aditzen nituen aleman soldadoak, pauso gogorrez. Gero, orduko jendeen problemak, bizi manera bitxiak. Gauzak etziren aise erosten, eta ez saltzen ere. Gauzen gordezka ibiltzen zen jendea. Baziren erresistenteak eta beste aldera pasatzen zirenak: Ingles pilotuak eta abar. Asko markatu naute. Eta ere bestaldetik gure herrira etorritako errefuxiatuak. Horiek, hemengo gerla hasi baino lehen etorri ziren. Gure herrian ba ziren hogeita bost edo hogeita hamar. Etxeetara etortzen ziren jatekoa erostera: esnea, artoa eta abar. Nahiz eta exilioan egon, oraino bazituzten holako gerrako txaketa batzuk. Neretzako, Euskadiko gudariak izan ziren nere bizitzan ikusi ditudan lehen soldaduak.

Pilotan aritzen ziren. Eta gudarosteko abestiak abesten zituzteen hiru edo lau abotsetan. Esplikatzen ziguteen nola Euskadik bere gobernua eduki zuen, eta abar. Gure etxekoek ez zekiten horrelakorik, salbu herriko apezak. Herriko apeza frankista zen. Harek errosarioa eginarazten zien herrian Frankok gorrien aurka irabaz zezan. Eta nik bost urtetan Kerman, Julen eta abar biz-

"Para nosotros el francés no era más que la lengua oficial, la lengua de nuestra vida era el euskara"





"Mi primer gran disgusto lo sufrí cuando me obligaron a iniciar los estudios del sacerdocio"

kaitarrek esanda, gauzak beste modu batetan ikusten nituen. Eta geroztik beti horrela segitu dut.

P. y H.: Eskolara joan zinen, nola zen orduko eskola?

E.E.: Eskola etxe zahar bat zen eta gure hiru hauzoen erditsuan mendi xola batean zegoen. Han hasi nintzen. Baina gero, erori zen eskola hori eta beste etxe batetara joan ginen. Irakaslea neska euskaldun bat zen. Harekin hasi nintzen frantsesa ikasten, baina euskararekin lagunduaz. Gero gaixotu nintzen eta, lehen esan dudan bezala, ospitalean egon nintzen. Eta han nengoelarik, irakaslea etorri zautan bisita egitera. Izpururra zen. Beti oroituko naiz esan zidanarekin: «eskolako leihotik ahantxiak ikusten dituzue. Horiek brebis deitzen dira frantsesez. Ikasi behar duzu». Horiek izan dira ene lehen oroitzapenak.

Ene eritasunarekin, sei urteraino ez nintzen berriz eskolara itzuli. Eta gure hauzoko laborariek, ene aitak eta besteek, egin zuten eskola berria. Beti mendian. Ez nekien oraino frantsesik. Eta nola haur guziek euskaraz aritzen ginen, delako makila famatu hori ekarri zuten. Elkarri pasatu behar genion euskaraz ari ginenean. Baina ez zuen balio, zeren lehen egunean besainka botatua izan zen. Halere, oroitzen naiz maixu batek, aski larderiaz, azkenean, egun batzuk iraunarazi ziola makil horri. Egun batez, bederatzi edo hamar urte nituelarik, ene arreba Ana Marik eman zidan makila hori. Ez dut sekula ahaztuko. Beharbada arrazoi horregatik, arreba horrekin beti izan dut problema bat. Izan ere, maixuek ba zekiten zer egiten zuten, ezen mintzaira elgarrekilako zimenta bat, lotura bat da. Maixuek deabruzkoa zuten beren jokoa. Elgarren arteko lokarriak etenarazten zituzteen. Batzuk besteetaz mesfidatzen ginen. Eta makila hori agertzean, jokak, herrak, laidoak eta holakoak sortzen ziren. Eta infernu bat bilakatzen zen gure mendietako errepublika. Zorionez ez zuen iraun denbora askoz. Aldizka ahazten zuten eta gero abandonatu zuten.

P. y H.: Herriko eskolatik kanpo ere ibilia zara zure haurtzaroan.

E.E.: Hamabi urtetan ezarri ninduten Belloc-en. Zuberotar batzuk ahalge ziren beren azentoagatik eta manexoi parre zozo bat egiten ziguten. Haiek Landesetako batzukin erderaz egiten hasi ziren. Baina guk, Baxa Nafartarrok, beti nola eskolan hala gaineatikoetan, euskaraz baizik ez genuen egiten. Frantsesa, guretzako, ofizialeko mintzaira baizik ez zen. Bizitzako mintzaira, euskara zen. Ene bizian lehenbiziko desgusto haundia, apezteko ikasketak egin behar nituela komentzitu edo, hobe, bortxatu ninduteneen izan zen. Halere hamaika urtetan pentsatzen nuen Belloc-eko eskola hortan euskaraz ariko ginela. Izan ere, neretako errientsa zen frantsesa, baina apeza euskalduna zen. Eta, nahiz nere gogoaren kontra eraman apez eskolara, momentu batzutan bihotza argitzen zitzaidan euskaraz egingo nuela oroituta. Hamabi urte nintuelarik sartu nintzen Belloc-en. Zer tristura, han sartu eta erderaz baizik ez entzutean! Otoitzera joan eta erderaz! Ez nekienean hitzik ere. Hori, enetako arrebak makila eman zidanekoa baino traizio haundiagoa izan zen. Eta orduan, nere bihotzean ez zen gehiago dudarik etxe hartan ez nintzela egongo. Ez nintzela apeztuko. Eta lehenbiziko gabonetan bakantzetan etxera joan nintzelarik, sabaian aitarekin eta anaia batekin lan batzuk egiten, dena euskaraz berriro ari ginen. Orduan, hiru hilabete beste mundu batean murgildu nindutela eta, handik etxera etortzean, nere betiko mundua harrapatu nuela, hots, euskal mundua, pentsatzean, eskizofreniko bat bezala jartzen nintzen.

Adin hortan, erdera ikasteko indioen historiak irakurtzen ginuzten, eta orduan, pentsatu nuen lehenbizikoz gu ere indioak ginela. Neri sekula ere ez didate sartu buruan Jeanne d'Arc, Napoleon eta holako mito frantsesik. Izan ere, nik banituen, beharbada, subkonzientean,

nere mitoak: Kerman, Julen, hots, Euskadiko gudariak. Suerte hori izan dute!

Gero bizkaitar bat ere ezagutu nuen. Salazar zuen izena. Errefuxiatua zen. Frankistek heriotzara kondenatutako horietarik bat. Harek esplikatzen zigun eni eta lagun batzuei Euskadi zer zen eta nola bizitzen ahal ginen. Ordutik, abertzalea naiz. Gero esan behar dut Belloc-eko Iratzederrek ere igandeetan ordu batzuez euskal historia eta literatura erakutsi eta bertso batzuk egiten zizkigula.

P. y H.: Euskal Herritik kanpo ere ikasketak egiten jardun zinen?

E.E.: Geroago deliberatu nuen Tolosara joatea eta zientzia politikoak egitea. Izan ere, Euskal Herriko problemak interesatzen zaizkidan. Dena den, bi eskola mota egin nituen aldi berean, zientzia politikoak eta nekazaritza.

Nekazaritza egiteko ba nuen diru laguntza bat eta esandako bi karrerak egiteko baliatzen nintzen.

P. Y H.: Haurtzaroan, nola informatzen zen jendea zure herrian? Irratirik ba al zegoen etxeetan? Kazetarik irakurtzen al zen?

E.E.: Irratirik ez zen. Ene herrian ene osaba batek ukan zuen lehen irratia. Ezpartin egilea zen eta kadera batean ezarrita egoten zen bizkar hezurra gaizki zuelako. Ene amaren sortetxean bizi zen. Handik jakiten genituen zenbait berri. Alemanak Marseilan sartu zirela eta abar.

Kazetarik ez zen gure herrira etortzen. «Euskalduna» aldizkaria bakarra zen gure herrira ailegatzen. Berriak, ordea, komertzianteen bidez jakiten ziren. Komertzianteek irakutzen zuten hizparrangia. Gero berrien interpretazioak (hori zen inportanteena) apezak egiten zituen. Ez da harritzekoa, orduan, Espainiako gerla jendeek komunisten kontrako gerra bat bezala segitu bazuten. Gure herriko apezak predikutik hori esaten baitzuen. Gainera, beste apez askok 1938-an Hazparnera biltzarre nagusi batetara jendea deitu zuten. Hor «La croix du feu»-ko ordezkarietarik zen «Le colonel Laroque», frantses nazia entzutera, alegia. Bostehun bat gizon bildu omen ziren eta hoiek apezek elizatik eskatuta. Duela zenbait urte ene aitak esana da. Oraindik bizi dira han egondako batzuk.

P. y H.: Zer gertatu zen biltzarre horren ondotik?

E.E.: Biltzarre hortatik desgustatuta etorri ziren, zorionez. Ez zuten ezer lortu konbokatu zutenek. Zeren ez zuten euskara-z mintzatzeko preokupazionerik ere hartu. Eta jendea ez zen enteratu ezertaz. Gero, autobusa ere norberak pagatu behar izan zuen. Eta gainera ez janik, ez edaririk ez zieten eman. Eta hori pekatu mortala zen. Orduan, Le Colonel Laroque delako horrek sarrera galdu egin zuen. Lehenbiziko emanaldian bukatu zen teatroa. Exenplu horrek agertzen digu jendeen informazioa nolakoa zen.

Gero, Petain-ekilan denak petenista bilakatu ziren. Gerra ondoren izitu zen (badakizue ezkerraren beldurra izan baitzuen) eta Errepublika popularrera konbertitu ziren gehienak. Errecart eta horrelako batzuekin.

P. Y H.: Gaurregun nolakoa da apezen jokabidea?

E.E.: Hori konprenitzeko, lehenik jakin behar da, abertzaleak gu garela lehenak hemengo herrian apezek manatzen ez gaituztenak. Halere, minoria bat gara. Gazteak gehienak. Baina beste guziek heurekin jarraitzen dute. Halere, badira adinetako ohoregarri batzuk gurekin direnak. Ba dakizu, autoritarismoa, nagusigoa, elizgizonek hori edukitzea normala da. Ezen esprez probokatzen du elizak. Ikusten badugu elizaren organizazionea nolakoa den, lehenbizi, gizon batzuk seksualki, afektiboki frustatu egiten dituzte. Guzi hori familiarik ez dezaten izan, ezkon ez daitezen, garesti kosta ez daitezen helburuarekin. Apeza merke behar da. Orduan, frustazio horren konpensamendu autoritarismoa dute. Historian zehar ikusten badugu ere, frustrazio asko-

"Mi producción artística ha sido un intento desesperado de mantener mi propia integridad"



ren soluzionea autoritarismoa izaten da.

Orain gertatzen ari dena zera da, zuten konpensamendu hori galtzen ari direla.

P. y H.: Iparraldean, askorentzat, Argeliako gerla izan da herri kontzientzia hartzeko mementu pribilejiatu bat. Zuk nola bizi izan zenuen?

E.E.: Ni nere anka eri horrekin libratu egin nintzen gerratik. Baina anaia lehen deituetan izan zen. Eztari ona zen, euskaldun asko bezala. Punta puntan ibiltzen zuten eta zauritu zuten. Bere odolaren hirutatik bi galdu zuen eta kasik hila gelditu zen. Horrekin trajikoki ezagutu dut Argeliako gerraren inpaktoa ene familian. Ni, orduan, Tolosan nintzen ikasle. Oraino oritzen naiz, anaia Argeliarako deitu zutelarik, nola etxekoek deitu ninduten anaia despeditzera etxeratzeko. Autobusa hartu eta etorri nintzen.

Alde batetik, horrela unkia familian, eta beste alde batetik, zientzia politikako ikasle nintzelarik, ongi jarraitzen nuen bai jendeen mentalitatea, bai profesoreen opinionea, eta baita hango feudalitatearen haurrak ziren zenbait pied-noirena ere.

Nik hastapenetik Argeliak irabaziko zuela pentsatzen nuen.

Baina profesoreek federalismoa zela soluzionea esaten zuten.

Azken mementuraino Frantzia eta Argeliaren arteko federakuntzan sinistu zuten.

Oroitzen naiz, urtea bururatzeko profesore batek esan zidala lan pertsonal bat egiteko: «Evolution politique du Togo» agertuaz. Togo, hamalauko gerlatik landa alemanei kendutako Frantziak kudeatzen zuen kolonia bat zen. Profesoreak berak esan zidan lan hori egiteko dokumentazionea non harrapatuko nuen. Horrela, dokumentazioetan, kazetetan ikasi nuen Togo Frantziak oso ongi administratzen zuela eta hango jendea oso pozik zegoela. Hitz batean, Frantziarekin adiskidetzan eta osmosi onean bizi zirela. Hori bai, Silvanus Olympio bezalako marginal batzuk bazirela ikasi nuen. Silvanus OLympio horrek bere bizitza osoa preso pasatua zuen. Baina irautlzaile horiek, ez zuten, omen, eraginik batere herrian. Ba noa nere tesiarekin profesorea ikustera eta bidean, kasualitatez, Le Monde kazeta erosten dut. Irikitzen dut eta horra zer titular zekarren: «Victoire de Sylvanus Olympio au référendum du Togo» Orduan, profesoreari esan nion: «Hemen duzu ene lana. Emango didazu, beharbada, nota on bat, baina honek ez du ezertarako balio».

Begira zer den diskurtso eta idatzi ofizialen ondorioa. Barre haundi bat egin zuen. Ikusi nere mundua. Frantziaren inperioko esplikazioa eta interpretazioa hor gelditu ziren. Horrela begiak ireki nituen eta betikotz mintzaldi ofizialen balioa konprenitu nuen.

P. y H.: Zer egin zenuen ikasketak bukatzean?

E.E.: Ba nuen anaia bat Ameriketan eta nik ere fortuna bildu behar nuela eta hara joatea pentsatu zuen. Fortuna egin eta Euskal Herrira itzuliko nintzen eta hemen izparrangi bat sortuko nuen. Izparrangi abertzale bat. Le pére Noël-ek bezala pentsatu nuen.

P. y H.: Eta nola bukatu zen asmo hori?

E.E.: Tesi baten lana prestatzen Afrikan egon nintzen bi urtez. Handik etortzean, beti Canadara joateko asmoarekin nindagoen. Biletearentzako dirua baztertzen ere hasi nintzen. Halako batean, ene lagun min bat etortzen da ni ikustera. Lagun horrek eta nik kasik parasikolojiko zen harreman bat genuela esan behar dut. Afrikan ezagutua nuen eta ene bizitzako momentu inportante guzietan nere ondoan izaten zen magiaz bezala. Hori bera da kasua, Ameriketara joateko nindagoenean, krisi haundi bat pasatzen ari nintzela goiz batez nere etxera agertu zenekoa. Beti pentsatu dut telepatia bezala gertatzen zitzaigula.

Esan nion Ameriketara joateko asmoa nuela. Berak hau esan zidan: «Amerikara joango zara, baina ez ara itzuliko». Beste norbaitek esan



"Yo siempre pensé que nosotros éramos indios, a mí nunca lograron inculcarme mitos como el de Napoleón o Juana de Arco"

bazidan ez nion kasorik egingo. Baina harek esanda, Ameriketera joateko asmoak nere burutik kendu egin nituen.

Urte berean, Ameriketara joateko asmo horrekin nebilela, bakantzetan itzuli bat Euskal Herrira egitean, Itxasun abertzaleen biltzarre bat prestatzen ari zirela jakin nuen. Eta gehiago jakin nahirik, ilusio haundi bat piztu zitzaidan bihotzean.

Aldi berean, letra bat izan nuen Senperen laborantzako eskola bat egiten ari zirela eta han lana eskainiaz.

Orduan, hiru gauza horiek, Euskal Herrian lan egiteko itxaropena, lagun horren bizita, eta Itxasuko biltzarrea, hots, 1963-koa, nere geroztiko bizitzaren bideratzaile gertatu ziren.

P. y H.: Kantuak egitera zerk bultzatu zinuzten?

EE.: Enbata sortua zenez, horko biltzarretara joaten nintzen. Baina goratik erori nintzen gure herriko egoera ikustean eta desplazerra sentitzean. Euskaratik hasi eta gaineatikoetan gure herria subdebelopatua zela ohartu nintzen. Apezetatik kanpo ez zen inor ezertaz hitz egiteko. Egun batez paper bat jasG nuen etxean: «village en vente» zeraman izenpurua. Irakurtzen dut eta Lizaso salgai zegoela jakiten dut. Hori ikastean, orduan berean, Otxagabia kantua egin nuen. Halere, ez nuen pentsatzen populuaren aitzinean abesterik. Gero konturatu naiz, ni neu ez desintegratzeko atera-bide bat izan dela nere produkzio artistikoa. Aldi guziz, kantu bat idaztera bultzatzen ninduena, emozio haundi bat izaten zen.

Enbataren disziplinarekin ibiltzen nitzenez, mitin batzuk egiten hasi nintzen. Sei edo zazpi pertsona bakarrik etortzen ziren. Horietarik bi kuriosoak, bi abertzaleak eta besteak aurkakoak izaten ziren. Hori zen Abeberri eta Biarritzekoan dialektika frantsesa. Nik zera ikusten nuen pizontzira piza egin beharrean, zangoetara egiten ari ginela. Diskusio anitz ukaiten genuen. Davant eta beste batzuekin ekonomia gehiago behar zela tratatu eta indar egiten genuen. Konturatzen ginen minoria ginela eta jendeari ez geniola ontsa mintzatzen.

P. y H.: Orduan, jendea nola kontaktatu?

E.E.: Donibane Garazin ba ziren feriak edo festak. Lau edo bost mila gazte ziren. Orduan, mahain inguru bat antolatu genuen, «Histoire de la Navarre» gaiaz. Jende gutxi etorri zen. Hori bai, hamabost bat jendarme izan ziren. Dantzaldietan, berriz, ez zen euskal abestirik entzuten. Ene mendiko herrian, Ezterenzubiko festetan, urte haietan, «Si vous allez á Taiti», zen modako abestia. Lehen baziren klarinetarekin muxikoak jotzen zituztenak. Baina 1963 inguruko urteetan, dena frantsesa bilakatua zen. Oroitzen naiz ene lehenbiziko artikuluetarikoan, (Herrian idatzi nuen) nola nion, hirurehun dantza baino gehiago zeudela klasifikatuta Euskal Herrian eta gure Ezterenzubin holako kantu zozoak entzuten ari ginela.

Inor ez zen konturatzen. Gazteek ez zuten karnabaletan ere ezer egiten. Mobiletak modan jarri ziren orduan eta bazterretik bazterrera mobiletan kurri zen guzia. Mutil denak eskapo Ameriketara, neskak Parisera, eta Lizaso salgai. Horren aitzinean amets bat sortu zitzaidan: gure gazteek, neska-mutilek elgar unkituko balute euskal kantuen bidez. Ilusio bat zen. Utopia bat ere bai, garai hartan. Donapauleko gazteek gaztelu zahar batetan biltoki bat zuten. Apariak eta dantzaldiak egiten zituzten. Etzen euskarazko hitz bat ere entzuten. Hortan irakurtzen dut euskal kazeta batean Lurdes Iriondori egindako elkarrizketa bat. Euskal abeslaritzaz. Jakin nuen ba zuela diska txiki bat ere. Berehala erosi nuen eta dantzatokira eraman. Hori izan zen neska-mutilek elgarri [illegible]otuta euskaraz dantzatu zuten lehendabiziko baltsa.

P. y H.: Labegueriren diskak ez al zinuzten ezagutzen?

E.E.: Bai, bai. Horiek ere orduantxe



"La experiencia nos mostró que con la gente había que comenzar afectivamente para entrar ya, más tarde, en teorizaciones"



"Me marcó mucho conocer, en la época que estuve hospitalizado, a los alemanes que nos habían invadido, así como a los resistentes y refugiados de Euskadi Sur"

atera berriak ziren eta hasi nintzen jendeari erakusten.

P. y H.: Eta zure abesti saioak nola moldatu ziren?

E.E.: Apezek organizatutako kermesa batetan abesteko eskatu zidaten. Beste bi gaztekin (Katin Etxeber eta Peio Etxalur ziren) Donazaharren kantatu nuen lehenbizikoz. Nahiz eta tronpatu ginen, publikoak ez zuen ikusi eta sekulako txaloak eman zizkigun. Oso onak ginela esan ziguten. Orduan neretzat esan nuen: Komunikabideak, Irratiak! Hauxe duk komunikabidea!

Mitinetan ibiltzen ginanean gauzak esplikatzen (beti erderaz egiten ginuzten gainera), ez genuen ezer lortzen. Orain, aldiz, tripatik abestu eta jendea biltzeaz gain, dirua ematen ziguten!

Geroago, bakarrik, Larralderekin kantatzen hasi nintzen.

Honela bada, emeki emeki abiatu eta, 1969-an, Donapaulen, kantaldi batean, zortzirehun pertsona biltzera heldu ginen. Garbi ikusi genuen jendearekin afektibitatetik hasi behar zela eta gero bakarrik teoriza zitekeela. Jendea zerbaitera bultzarazten dutenak hiru gauza dira: diruaren gosea, beldurra eta maitasuna.

P. y H.: Idazle ere ba zara, esango al diguzu zer egina duzun sail hortan?

E.E.: Artikuluak egiten nituen hastapenean. Nere gostuko dutan idatz mota olerkia prosan da. Baina denboraren faltaz, hori ez dut sekula egin. Artikuluak, ekonomiaz, jendearteko gora-beheretaz, politikaz egin izan ditut. Beti engaiatuak eta ahal guzian euskaraz «Herrian». Elaberri bat ere badut: «Azken elurra». «Elurra zikindurik» bezalako saioak ere egin ditut. Beti gehiago egingo dutan itxaropenez nago.

P. y H.: Zenbat abesti egin izan dituzu oraindainokoan?

E.E.: Hirurogei bat inguru.

P. y H.: Ekonomiazko hiztegi batekin ere hasi zinen, zertan zara?

E.E.: Bai, baina ez dut denborarik. Hitz zerrenda batzuk egin nituen. Baina orde asko gabe. Nik eskolan ekonomia politikoa ematen dut eta hori euskaraz egin nahi nuke. Baina beldur haundia dut. Zeren, euskaratzen ari direnek, kontzeptu horiek latinetik edo alemanetik hartu eta itzuli besterik ez dute egiten. Baina, askotan, kontzeptu horiek desberdinak dira. Askotan, frantsesez, kontzeptu batez edo biez agertzen dutena guk beste manera batez esaten dugu. Orduan, pentsatzen dut ekonomia bizi egin behar dela. Herriak bizi duen bezala, fisikoki bizi. Komertzioan ibili eta diruarekin lan egin. Jendeak kontzeptu horiek nola konprenitzen dituen ikusi behar da. Zer hitz diren aproposak. Zure hizkuntza ekonomikoa nola ulertzen duten aztertu behar da. Disziplina hortako hitz nagusien zerrenda euskaraz ezartzen saitu behar da.

Konparazione, «eskugaina» hitza finanzial termilogiara eraman litekena da. Hitz hori ez da besteen kontzeptuaz bihurtu behar. Gestioneko nozio inportante hori agertzeko euskaraz «eskugaina» erabili behar da.

Beste konparazione bat. Euskarazko «itzulpurua». Erderaz «la marge» edo «margen» litzake bere adierazpena. Frantsesez edo espainolez «la marge» edo «margen» esatean, kuaderno batetan marretatik at gelditzen den zatia da. Baina «itzulpurua», aldiz, euskaldunentzat, alorrean gelditzen den zatia da. Ikus zer abiada diferenteak diren bi hitzentzat. Batak ofizinetan sortutako kutsua du, eta besteak, alorrarena.

P. y H.: Irakaskintza ere egiten duzu, zer eta non irakasten duzu?

E.E.: Hori da gure etorkizunaren giltza. «Herri Taldeetan» eta kostako abertzaleen artean asko, gure eskolatik pasatuak dira. Populua ez da tronpatzen eta gure etsaiak ere ez. Ba dakite gure eskolatik ateratzen direnak zer bilakatzen diren. Nik ez dut eskolan Euskadi hitza erabiltzen. Ekonomia irakasten dut. Moneda irakasten dut ahal bezain ongi. Eta gero nere kontura mitoak irakasten ditut. Frantsez mitoak hausten ibiltzen naiz jo eta ke. Jeanne d'Arc, Napoleon eta horrela-

koak. Zeren Jeanne d'Arc mistika bat bezala agertzen zaigu, baina mistikotasun horren atzean politikazko ekintza inportante bat dago. Zergatik Jeanne d'Arcren lehen operazio militarra Reims-eko bidean gertatzen da?, Charles IV-garrena Reims-en sakratu behar zelako. Eta zergatik? Charles IV-gn hori errege bazen, sakratua egon behar zelako. Eta guzi hori, hain zuzen, errege ez zelako. Franko bat baitzen. Errebelde bat. Frantziako egitazko erregea Henri II-gna zen. Eta Anjou-koa zenez, hura zen kapitala eta ez Paris. Charles IV-gna, orduan, usurpatzaile bat zen. Eta Herri II-gna jainkoak errege egin bazuen, Frantziako populuari nola esplikatu orain Jainkoak ideia aldatu duela. Orduan, Jainkoa mintzarazten da Jeanne d'Arc-en bidez. Horrela deskonposatzen dut Frantziako mito haundienetako bat.

Israeldarrak Egiptotik nola eskapatu ziren ere gustatzen zait esplikatzea. Nola egin zuten? Heuren erlijionea esplikatzen dut. Ba dakizue nola zen historio hori. Bildots bat hil behar zuten eta israeldarren etxeak haren odolarekin markatu. Zertarako? Jaunaren aingerua pasatuko delako gau horretan eta markaturik ez dauden etxeetan sartuko delako haien semeak ezpataz pasatzera. Israeldarrak bitartean eskapatu egingo dira. Jaunaren aingeru hori gaur zer den? ETA militarra da hori. Gau hortan, Israelgo terroristek, han nagusi ziren administratzaile, goardia denak desorganizatuko dituzte. Sua emango dute leku guzietan eta honela eskapatuko dira.

P. y H.: Orain, Etxamendik barre bapo egiten du eta bere esplikazio sutsuekin jarraitzen du.

E.E.: Aingeruak, Txomin Iturbe, Eustakio Mendizabal eta Mamarru dira. Hara desmistifikazioa. Hori da nere lana. Besteek finkatutako mitoak kakaz bete. Hori izan zen konkistadoreen politika. Lehendabizi besteen mitoak apurtu behar dira, eta gero, gure mitoak sortuko dira. Herriak kreatzen ditu. Ez dago gizarterik, naziorik, mitorik gabe.

Lagun batek esan zidan egun batez: «mitoak kondaira baino egiago zirela populo bat ezagutzeko». Historia ezagutua ongi da, baina batez ere bere mitoak ezagutu behar dira. Bai, eta zorionez, gure herrian mito berriak kreatzen ari dira. Hemen Iparraldean kantuaren alorrean frantsez mitoak haustera heldu gara. Lehen nehork ez zuen euskal diskarik erosten, ez irratietan pasatzen. Orain gazte guziek euskal diska pila bat dute. Eta «Gure Irratia»-n, «Adour irratia»-n, euskal musika mito bihurtu da. Jendeak irrati horiek bakarrik entzuten ditu. France Inter, Radio Montecarlo eta abar erori dira guretzako.

P. y H.: Garrantzizkoa da esaten ari zarena, zeren, azkenean, jendea ezin da bizi mito gabe.

E.E.: Ez, hutsa ezin da izan. Zerbaitetan sinistea beharrezkoa zaigu. Baina, ez gaitezen tronpa, eta besteen mitoak bazter eta gureak egin ditzagun. Zer egin zuen besterik hirurogei urtez Voltairek Frantzian? Bere garaia ikasten badugu, zera ikusten dugu, Voltaire izan dela Iraultzaren arbaso espirituala. Zer egiten zuen? Zeunden mito zaharrak poemen eta nobelen bidez apurtu. Gero sortuko ziren Diderot eta horrelakoak arrazionalismoarekin.

Militantismo on bat egiten delarik, beti ikusiko duzue etsaien mitoak apurtuaz joaten direla. Etsaia hiltzea gauza bat da, baina haien mitoak hiltzea sakonagoa da.

Begira aintzinateko bi iraultza. Bata, Moisesena, irabazia, eta bestea, Espartacusena, galdua. Espartacusek ba du gudarostea, eta legioneak batzuk besteen ondotik 70.000 esklabokin, eta halere galdu egiten du. Moisesek aldiz, zer du? Ba kaxatxo bat egin, han Jainkoa sartu eta berarekin eramaten du. Eta besteak Jainko gabe uzten ditu. Harri puska bat eta egur puska bat da guzia, baina besteak Jainko gabe. Hori da fikziozko neurosis geniala. Esklaboak izanik nagusien organizazionea kopiatzen du. Horrela militarren



"La mayoría de los abertzales de la costa así como miembros de 'Herri Taldeak' han pasado por nuestras aulas"

kasta, apezen kasta eratuaz metikulosoki legea edo kodigoa aldatzen du. Lehen Jainkoa nagusiekin zegoen. Orain guk dugu Jainkoa. Eta horrela esklabo Herri batekin nazio bat egin zuen.

P. y H.: Arian arian, utopia hitza ere atera zaizu. Gaurregungo euskal giroko errealitate firmo bilakatu diren gauza batzuk zure gazte denboran utopia izanen ziren? Adibidez, gaurko ikastola fenomenoa, orduan utopia bat zen. Bestalde, hemen bezala hegoaldean ere, burruka bat egin eta nekatuak sentituaz baztertu direnak, burrukan jarraitzen dutenak utopiko direla diote. Zer diozu hortaz?

E.E.: Neretzako, utopia errealiatatearen eskaratza edo sarrera da. Utopiatik hasten dira lan guziak beti. Eta utopia gabe ez dago bizirik. Baina, momentu batean, jende razionalari, normalari, nekatzean, ezin sinetsizko gauzak gertatzen zaizkio. Neurotiko sensibilitatedun batzuek, negar egiten dutenek, une fragil batzuetan, bisioneak ikusten dituzte.

P. y H.: Herri hau laborarien herria da. Zuk laborantza ere egiten duzu eta laborantza egiteko modu bat ere baduzu. Bide berri bat hasia duzu. Etorkizuna nola ikusten duzu?

E.E.: Gu aterbe azpian egiten diren baratzekin hasi ginen. Justoki orain duela hamabost urte. Eta esan behar dut ongi gabiltzela. Pagatuak bait ditugu lurra, etxea, egin genituen infraestruktura gastuak, eta gainera beste esplotazione bat formatzen ari gara. Ene sortetxea organizatzen ari gara ene semearendako. Hamahiru hektarea landarez bete ditugu.

P. y H.: Hortan ere zuek utopikoak zineteen?

E.E.: Bai, noski. Beste batzuk ere hasi ziren baina ez zuten jarraitu.

P. y H.: Orduan, utopia errealitate bilaka dadin lana beharrezko dela esan nahi duzu.

E.E.: Bai, horixe, da. Baina utzi dutenak ez ziren nekazariak. Nekazariak bere parrari, bere gaiari, bere urratsari inoiz ez baitio uko egiten.

Antsiaren, beldurraren aurka beste batzuk gaizkiago daudela beti pentsatu behar da. Eta bestalde, urratsak aurrera egiten saiatu behar da. Atzera joan partez, erdi batekin egoten ikasi behar da, biharamunean oso bat lortzeko. Hori da nekazaritza. Ongi erreusitzeko teknika eta merkatua ongi ikasi behar dira. Iralurrek, Koldo Bizkaik eta Azkaingo Gotzonek egindako berotokiak ere horrela aurrera atera dira.

Nola ikusten dudan geroa? Pentsatzen dut errekonbertsio batzuk egin behar direla eta laster hasi behar litakela. Ezen haragia produkzio artisanala zen Euskal Herrian oraintxe arte. Baina azkeneko urte hauetan etxeko gauza asko industrializatu egin dira. Orduan, prezioak astiro astiro beheti joan dira. Adibidez, ardi esnea lehen oso garestia zena, orain behi esneak konkurrentzian hartzen du. Zeren agroalimentazioneko ofizinetan produktu berriak bilatzen baitituzte (berriak eta onak omen dira). Jendeak ba daki behi esnea eta ardi esnea berdinak ez direla, baina nola behi esnearekin egindako produktu asko baden, hori erostera egiten dira. Honela bada, ba da presione hori hemengo mozkin inportanteenentzat. Ardi esnea, behi haragia eta ardi haragia konkurrentzia larriare-

---

En Euskadi Sur habrá sonado para quien tuviera afición a acudir a festivales de esta canción el nombre de Etxamendi, en este caso siempre unido al de Larralde. Sin embargo, si de ese Etxamendi cojo que a muchos ponía los pelos de punta desde los escenarios con su melodiosa «Otxagabia» –es una de las sesenta canciones compuestas por él– sólo sabemos lo que hemos visto de él en los escenarios festivaleros, no conocemos de él más que un 5% –si esto pudiera medirse en tantos por cien– del grano de arena transformadora que es Etxamendi en la realidad de Euskadi Norte.

El resto del tanto por cien queda repartido entre su militancia política, cultural, su labor en la enseñanza y, cómo no, la labor que ha venido desarrollando en el campo «laborari» desde quince años atrás.

Nacido en Eztterenzubi, una pequeña localidad de la Baja Navarra. Hijo de familia euskaldun, que como tantos otros, casi todos, hijos del campo de Euskadi Norte no supo francés hasta que le obligaron en la escuela, Eñaut Etxamendi cuenta en la actualidad 47 años.

La cojera que observábamos en Etxamendi los festivaleros data desde su más tierna niñez y precisamente a ella hace referencia cuando habla del primer gran acontecimiento que marcó su vida. Cuenta que fue hospitalizado, a punto de morir, justo cuando empezaba la sublevación franquista en el Estado español. Precisamente durante esa hospitalización conocería a los alemanes que ocupaban Francia y también a miembros de la resistencia, así como a refugiados provenientes de Euskadi Sur.

Pero el primer gran disgusto de su vida, así afirma él, fue la obligación de internarse en el seminario de Belloc para ser sacerdote. Solamente la esperanza de encontrarse allí con un cura que le enseñara euskara y le posibilitara un ambiente euskaldun le hacía, en principio, soportable la idea. Pero sus pocas esperanzas se derrumbaron cuando comprobó que allí el euskara no contaba para nada. «Cada vez que volvía a casa rescatado de tres meses de ambiente extraño y absolutamente hostil para mí me volvía esquizofrénico».

«Yo me hice abertzale por influencia, entre otras, de un tal Salazar, refugiado bizkaitarra que nos explicaba la situación de Euskadi».

Después de la estancia en Belloc, lo cual no le convirtió en un adepto a la Iglesia precisamente, decidió irse a Toulouse para comenzar estudios de agronomía y ciencias políticas simultáneamente.

De la influencia de sus

kin aurkitzen dira. Eta krisi luze bati buruz ari gara. Orduan, oraindainoko diru iturriak behetituaz joango dira.

Aldiz, oraintxe arte, hogeita bost urtez, teknika berriei esker, mozkinak nola kantitatean hala prezioetan beti goitituz joan dira. Gainera, hortarako, etxaldeak hobegotzeko lur ahalak ere ba ziren. 30.000 hektara lur berri eginak izan dira. Gauza horiek esplikatzen dute Euskal Herrian azken hogeita hamar urte hauetan egon den prosperitatea. Eta arrazoi bat da ere abertzaleen ideia berriak zergatik sartu ez diren esplikatzeko. Ez dut esaten arrazoi bakarra denik, baina bat bai. Subentzioak ere ba ziren. Eta kreditoak euforia bat ematen zuen. Horrela tresnak erosten ziren. Orain jendea kredito horiek pagatzen ari da eta krisian dago.

Baina ahaltasunak badira. Guk semearendako urriztia egin dugu. Euskal Herria urriztiak egiteko Europako lekurik hoberena da. Kiwi, fruitu berri bat ere aldatu dugu. Txinako fruitu bat da. Oso garestia. Hemen agro-ekolojiko kondizione idealak omen ditu. Sei hektara egin ditugu kiwi horrekin. Gaineatikoa, urritzekin, gaztinekin eta intxaurrekin bete dugu. Hamar hektarea pasa lur konpondu ditugu. Euskal Herriko kondizione naturalak esplotatu behar dira. Adibidez, Kaliforniako kiwia Euskal Herrikoa baino askoz txarragoa da. Eta horiek denak, bost mila frankoko traktor txiki batekin egin ditugu. Hemen laborariek erosten dituzten traktoreen prezioarekin, guk, hamar mila arbola baino gehiago; eta denak selekzionatuak landatu ahal izan ditugu.

Bai, hemengo laborari batzuekin mintzatu garalarik, hori esan digute: subentzioekin behar ez diren makina eta traktoreak erosiarazi dietela eta orain ezin itzulirik daudela. Batzuek konturatu dira hori tranpa bat izan dela.

Bai, horixe! «Crédit Agricole»-k eta tresna saltzaileek sakatzen dutena jendearen buruan ilusio faltsu batzuk ezarri eta beren tresnak saldu da. Baina, guk, hemen, gure lurra eta ahaltasunak ezagutu, ikasi eta horren gainean plangintza bat eratu behar dugu.

P. y H.: Orduan, zuk pentsatzen duzu zuen haurrentzako laborantzan etorkizunik ba dagoela?

E.E.: Nik ikusten dudan bezala eginez, bai. Hogeita hamar hektara lur duten etxeetan bi edo hiru haur bizi litezkela pentsatzen dut. Hemen falta zaigun gauza inportante bakarra, inbertsio intelektual bat egitea da. Preparazio gabe ez dago ezer egiterik.

Hemen laborantza modu berrian erreusitu dugun guziok ikasiak gara. Nekazaritza eta ekonomia ikasketak eta Herri ezagutza sakon bat eginak ditugu. Preparazio intelektual batekin hasi garela, alegia, esan nahi dut.

P. y H.: Zuen bi semeak, bata zure sortetxean eta bestea zuen oraingo etxaldean geldituko direla diozu, eta zuen bi alabak zer?

E.E.: Ez dakit... heurek nahi balute laster prestatuko ginuzke beste etxalde batzuk. Hortarako, ba da beste ahaltasun on bat. Adibidez, lorategiak muntatzea...

Eta hortan, Etxamendi eta bere emazte Jeny, kolaboratzaile haundia beste bat arte agurtzen ditugu.

estudios en el seminario de Belloc quedan frases como ésta: «la organización de la Iglesia se basa en la frustración sexual y afectiva de unos hombres, los curas, para que su mantenimiento, libres de esposa e hijos, salga más económico. Como compensación a esa frustración no pueden más que recurrir al autoritarismo, lo que sucede es que hoy están perdiendo esa compensación y ahí está el resultado».

Etxamendi relata los avatares de su militancia en «Enbata», sus artículos en «Herria» y su desesperación por el galopante alejamiento de la juventud del entorno del euskara. Pero una de las labores destacables de Etxamendi es su docencia —da clases de economía—: «En clase trato de explicar lo mejor posible todo lo referido a la moneda, no hablo de Euskadi, pero en la calle me dedico a romper mitos como Napoleón o Juana de Arco. Los mitos son absolutamente necesarios para la existencia de una nación, de una sociedad, de un pueblo, pero hay que destruir los mitos del enemigo para luego crear los propios.

Llevar a cabo un buen militantismo es la mejor forma de ir disolviendo los mitos del enemigo. Lo más fácil es acabar al enemigo, lo difícil es destruir sus mitos.

Esta labor que nosotros llevamos a cabo en nuestra escuela es la que de momento ha dado casi todos los abertzales de la zona de la costa así como la mayoría de la juventud que se aglutina en los «Herri Taldeak».

Sin descuidar ninguna de las facetas de la lucha, sin embargo, la labor primordial que ha ocupado a Etxamendi en los últimos quince años ha sido la de «laborari», que desarrolla en un caserío «antes era una borda» —afirma-, situado en la pequeña localidad de Bitiñe. Allí, Eñaut junto a Jeny, su inseparable compañera y sus cuatro hijos se han dedicado a demostrar lo indemostrable: que se puede vivir y desarrollar el trabajo en el caserío.

Dice Eñaut que «con treinta hectáreas puede vivir tranquilamente una familia con dos o tres hijos». Lo que echo en falta es una necesaria inversión intelectual.

Todos los que hemos comenzado este tipo de experiencias —añade— hemos realizado estudios de agronomía y economía por lo menos, nos hemos incorporado con una formación intelectual anterior». Eñaut hoy está preparando el terreno para que su hija pueda dedicarse también a la tierra, para lo cual está acondicionando un nuevo caserío con trece hectáreas donde ha plantado más de diez mil plantas de árboles como el nogal, el kwi, el castaño y avellano.

Idiart garai batetako apez agintariek. Zuberoako herri txiki hortara. Bostehun lagunetik gora ez duen herri bati ezin baitzaio beste kalifikatiborik eman. Baina kastigu hura hasi zenetik, Rogerrek ez du hala hartu eta bere ingurua trasformatzen ari da beste ezer baino gehiago. "Hemengo jendea bere moralean jaso behar da, dio Rogerrek, zeharo goiberdua bizi baita, etxeak husten direla eta askotan lur jotzen dutela ikustean". Eta horrela, Rogerrek etxagile fazeta atera eta landu behar izan du exenplu emanez etxeak, elizak eta beselizak altxatuz.
Kastiguari buelta eman eta bere agintariek nahi izango ez zuketen militantziari jarraiki zion, herriarekin bat eta herriaren alde.

Maite Idirin
Jokin Apalategi

Roger Idiart

Apez humil eta herriko militante

PUNTO Y HORA: Non sortu zinen?

ROGER IDIART: Azkainen sortua naiz. Lapurtarra naiz, beraz. Nere etxearen izena, berriz, Errebira da. Beno, Erribera da benetakoa, baina, Azkainen Errebira esaten dute. Sei haurride izan gar.

P. Y H.: Eskolaz zer oritzapen duzu?

R.I.: Bost urte nituelarik joan nintzen eskolara eta ez nuen tutik ere ulertzen frantsesez. Den dena euskaraz egiten nuen. Gogoratzen naiz, lehen harremana maixuarekin lagun baten bidez izan zela. Hara lagunari zer esan nion: «errok pixile naizela». Alegia, pisegurea nuela. Honekin esan nahi dut, duela berrogeita bost urte Azkaineko familietan oso euskalduna zela giroa. Geroztik asko aldatu da.

P. y H.: Eta kalean berdin al zen euskal giroa?

R.I.: Gure denboran eskolako umeak eskolatik kanpo euskaraz aritzen ginen. Pilotan eta jolasetan beti euskaraz, alegia. Aldiz, jadanik, neska batzuk lerratzen ziren frantsesera, beren artean. Frant,ses kulturak ba zuen euskarak ez zuen prestigio bat. Geroztik aritu izan naiz pentsaketan gauza horren arrazoia atxeman nahiz eta Zuberorako, behintzat, feminismoa heltzea gauza ona izan dela konkluditu dut. Eta hori, orain duela berrogeita hamar urte etorri izan balitz hainbat hobe! Zeren Zuberoan, exenplu bat emateko, dantzariek eta hola ba dute prestigio bat herrian. Eta pastoraletan, kasik beti, gizonek egiten dituzte emazteen paperak ere. Nahiz emazteak lanean ari diren pastoralak ere izan. Halere, guziz gehienetan, gizonek emazteek baino inportantzia haundiagoa dute kanpoan, plazan, eta nonnahi. Hori ez da gauza zuzena. Eta orain, Seaskako bilkuretan parte hartu nahiz, mutil bezanbat neska agertzen dira; eta hori pozgarri da. Hau oso berria da eta oso inportantea iruditzen zait.

P. y H.: Beste zerbaitek ere markatu al zuen zure haurtzaroa?

R.I.: Nere haur denboran gauza bat oso inportantea gertatu zen nere eboluzio edo ibilketarako: Espainiako gerla. Nik bost urte inguru nituela, egun batez, gure baserriko leihotik beste aldetik ihes egindako berrogei bat euskaldun ikusi genituen. Baina etzen egun bateko gauza. Gure etxea baserri zenez eta muga ondoan zegoenez, ohitura genuen bestaldetik zetozen euskaldunekin hitzegiteko. Hortik Hegoaldeko euskara, ez beharbada, Bermeo edo Ondarroakoa, baina bai generala, inolako problemarik gabe ulertzen dut. Guretzako euskaldunak ziren eta ez espainolak, hemen askotan entzuten den bezala.

P. y H.: Eta kolejiora joan zinenean, zer atxeman zenuen giro bezala?

R.I.: Hutsarte bat bezala izan zen sistima frantsesean sartu ginelarik. Euskarazkorik ez baitzen ezer. Halere, ene oroitzapenetan karakatzen dutelarik, Lafitte jaun kalonjea atxematen dut. Guk, hirugarren mailako eskolara heltzean, aurkitu genuen eta bakarra zen euskaraz egiten. Honela, Lafittek euskarazko kanta asko erakusten zigun eta geroztik errepikan ematen genituen gure familian. Lau anaia bait ginen eta denok abots zuzena genuen. Hiru bozetan kantatzen genuen. Noiznahi, kafea hartzeko momentuan, euskaraz kantatzen hasten ginen. Eta, prezeski, Uztaritzeko seminario txikian Lafittekin ikasitako kantak ziren.

P. y H.: Zenbat urte zinuzten seminarioan sartu zinelarik?

R.I.: Hamaika urtekin sartu nintzen. Baina Lafittekin kantak ikasten aritzean hamalau edo hamabost urte nituen. Eta harek ez zuen abertzale eta holakorik aipatzen. Baina eus-

"Los curas son conservadores de oficio, por eso conservaron el euskara, porque era más difícil rechazarlo que conservarlo"

"Se observa un cambio en el comportamiento de la juventud en Euskadi Norte: antes se resignaba a emigrar fuera de Euskadi Norte, hoy en cambio hace todo lo que puede por quedarse aquí"

kaldunak aipatu eta euskaraz abestiak kantarazten zizkigun. Eta parre ederrak ere egiten ginuzten. Guretzat oso jakintsu haundia zen, beste irakasleek baino gehiago zekiena. Eta hori adin hortako umeentzat inportantea zen, harek erakusten ziguna baloratzeko orduan. Gizon hori ez zela nornahi eta asko zekiela kulturalorrean ageri baitzitzagun. Gero, berrogeita bostean, gerla bukatu zenean, igandeetan, Xalbadorrekin eta bertso saioetan ibiltzen zen. Gu, kolejioan, preso bezala, ez bait ginen handik ateratzen. Astelehenetan, errekreazionetan guregana hurbiltzen zen eta arbola batzuen azpian Xalbador eta Oxobi bertsotan nola hartzen ziren kontatzen zigun. Egun batez, Oxobik Xalbadorri esan omen zion: «jauna, arnoa maite duzun erradazu otoi». Eta Xalbadorrek ihardetsi: «jauna, zure sudur gorri horrekin maite duzu zure doi». Ondotik, Lafittek parre egiten zuen eta guk ere bai berarekin. Horrela, bazterretik sasi kultura bat bezala etortzen zitzaigun guri gure kultura. Ofizialki etzuen inolako tokirik, salbu astean behin, kanta horien ikastean. Baina hori bera ikusteak, hots, jaun profesor batek guri euskal kantak erakusten zizkigula, guretzet prestijio haundiko bihurtzea zen. Gaineatian, seminarioa desastre haundi bat izan zen, baita euskal liturjiaren aldetik ere. Ez dakit nola esan behar den, baina kasik kastratuak, zikitatuak bezala bizi ginen euskal giroari zegokionean. Dena moztua genuen... Dena frantsesa eta latina baitzen. Euskaraz ezer ez!

P. y H.: Euskal Herritik kanpo ere ikasketak egiten ibila zara. Zer gogoratzen duzu?

R.I.: Toiosako Unibertsitatera igorri ninduten. Han harritua gelditu nintzen, Jacques Allieres euskaltzain laguntzailea den hori nola euskal gauzetaz interesatzen zen ikustean. Guk euskal kantak eta kantatzen genituen. Orduan, bera guregana hurbildu eta elkarrizketa batzuk grabatu zizkigun. Oroitzen naiz, «la parabole de L'enfant prodigue», hots, ume galduaren historioa, eztakit zenbat euskalkitan hartu zuela, Bakoitzari bere herriko euskaran mintzatzeko eskatzen zion. Gauza horiek, neretzako, ene bizian, etapa edo puntu batzuk bezala izan dira. Gero bazuten elgarrekin lotura gisako bat.

P. y H.: Zure haurtzaroko oroitzapenetaz beste zerbait esan nahi al duzu?

R.I.: Enetako beste gauza inportante bat dantza izan da. Batzuek ba dute holako mespres bat bezala dantzarendako, hori folklorea dela, eskapismoa dela, eta abar... Ez! Nik uste dut euskal izatea, alde eta bide guzietatik sarrarazi behar dela, hala kantaz, hala dantzaz, eta nahi duzun guziz. Fandangoa, Urkijok Donibane Lohitzunen erakutsita ikasi genuen. Urkijo hori bestaldekoa zen. Eta gogoratzen naiz nik hamabi edo hamahiru urte nituela hasi ginela dantzak ikasten. Ba, fandangoan sei puntu bederen izanik, arrats batez ikasi nituen denak. Esan nahi dut halako gogoa nuela ikasteko, non han egon nintzela begiak luza luza eginda ongi ikasten eta gero, etxera etortzean, biharamunean, neroni bakarrik aritu nintzela. Eta gero, zortzi egunen buruan, beste saio bat egitera joan ginenean, fandango osoa ikasia nuen. Horregatik nik esaten dut, neri abertzalegoa edo euskaldungoa edo nahi duzuna, zangoetatik eta belaunetatik sartu zitzaidala.

P. y H.: Zure herrian apezak nola ziren, euskaldunak, frantsesak edo...?

R.I.: Nik uste dut apezak ofizioz kontserbadoreak direla. Eta garai hortan, euskara beste gauza gehiago

"Hay sectores que desprecian el mundo de la danza tachándonos de folkloristas, pero yo creo que es importante todo aquello en que se manifiesta el ser vasco"



bezala kontserbatu egiten zen. Etzen bazterrera uzten zeren kontserbatzea errezago baitzen. Zergatik? Jendeak mintzatzen zuelako. Bestalde, ez dakit motiboak onak ala txarrak ziren, baina, egia da euskarak toki bat ba zuela elizan. Eliza gauza ofizial bat da, eta predikuetan, kantuetan, katexinan, eta abar, toki bat zuen euskarak. Ez dut esan nahi apezak abertzaleak zirenik. Ez ziren batere abertzaleak. Oso frantsesak, kolonizatuak baitziren. Ez da beste hitzik. Seminarioan euskaldunen aurkako ezer ez zen bezala, zeren aldekorik ere ez baitzen. Gauzak Erromako monumentuak bezala bizitzen ginuzten. Latinez eta frantsesez, noski. Ez ginen konziente. Baina, Enbata hasi zelarik, lehenbiziko zenbakia hartu nuenean, izugarrizko txokea izan nuen. Momentu hartan Oloruko kolejioan irakasle nintzen. Ze kopeta duten horrelako gauzak estako! Pentsatu nuen. Eta niri izugarri gustatzen! Ba dakizu gu mugako jendeok kontrabandoa maite! Ba dakizu, hori ez baitzen batere ofiziala eta guri asko gustatzen debekatutako fruitua! Harek, beti gusto hobeagoa ukaiten du, ba dakizu?

Gero, lehenbiziko bakantzetan, Sokoako apezari laguntzera etorri nintzen. (Gero hamabi urtez egin nuen gauza hori). Eta ailegatzen naiz horra, eta errazu, erraiten diot Piarres Larzabali: –kazeta bat hartu dut izigarrizko gatz– piparrekilakoa. Asko gustatu zait. Larzabal parrez hasten da. –Aa, bai asko gustatu zaik? Eta orduan, bera ere tarteko zela eta nortzuk idazten zuten esan zidan.

Horrela, konturatu nintzen apezeria eta eliza ofiziala, batez ere kargodunena poderearekin, agintariekin eta frantses zibil sistimarekin, hots, Napoleonen denborako departamentuarekin, loturik zeudela eta diozesiak hortan jarraitzen zuela. Eta hori nazkagarria iruditu zitzaidan. Orduan ere jabetu nintzen haundiekin, aberatsekin, gobernuan daudenekin apezgoa loturik ibiltzea oso peligroso zela eta galbide izugarria izan zitekeela Euskal Herriarentzat. Eta hortan negoelarik, horra non ailegatzen den Vaticano II-gn Kontzilioa, elizak minorien, pobreen eta zanpatuen alde behar zuela adierazten zuen teoria batzuekin. Ni konforme negon hori esatearekin eta egiten bazen hobe! Eta gaur ere hortan jarraitzen dut.

Baina gero zera ikusten dut, elizak izugarrizko teoriak ateratzen dituela Frantziako elizaz, Sud-Est Asiatique, Salvador, Polonia eta abarretako saltsetaz, baina hemen bertakoetaz ez duela ezer esaten. Gure diozesiako boletina hartzean eta irakurtzean, goiti egiteko gogoa ematen du. Euskal gauzetaz pobrezia paregabea du. Saiatu naiz ez dakit zenbait bider, gutunak bidaltzen, gose grebak eta horrelakoetan eta behin ere hitz bat ez. Hori eskapismo hutsa da. Eta nola sekula arrapostu bat ere ez dutan izan, bizitzako manera batetara heldu naiz. Eta honela justifikatzen dut: ba dakit eliza ofizial horrek izugarrizko hutsak egiten dituela, aldiz, nik pentsatzen dut humilki bizitzen saiatu behar naizela, eta hori egiten entseiatzen naiz.

Honela, bizi naizen Zuberoan, parrokiako bezala oso jende guti dut, baina euskal kulturaren bidez Zubero osoan harremanak ditudanez, gehienak pastoralen edo kantuen bidez, Zuberoa guziko izaten saiatuaz. Ba dakit, haseran, kasik eskandala bat izan zela, pastoralak zirela eta eskatzen zidateen herri guztiei laguntzen nielako. Zeren, kontuan eduki behar baita, Zuberoan, Larraine, Santa Grazi eta Gotaine adi-

bidez ezkerrokoak direla, Barkoxe eta Altzai eskuinekoak direnez. Baina nik berdin guziei laguntzen nien.

Ni ez nintzen arduratzen gorriak ala zuriak zirenetaz. Euskal festa bat prestatzen dutelarik, beti laguntzeko prest egoten naiz. Horrela ikusten dut ene apez lana. Elizkizunak egin besteek bezain ongi eta hortik kanpo prest egon nonnahitik norbait laguntza eske etortzen bada, berdin eskubikoa ala ezkerrekoa izan laguntzeko. Honela, jendeek, gizonek edo emazteek, neretzat jendetasuna dela lehenik kontatzen duena ikusiko dute, fededun izan ala ez izan. Zuberoko esaldi zahar batek, eta neretzako ederrenetariko denak, dioenez: «jentiak jentia balio dizu». Eta presezki, atzo frantses kazetari bat etorri zautan enekin elkarrizketa bat nahi zuela esanez. Hara zer esan nion: «Nazkatua naiz euskal kausa defenditzeko argudio bila ibiltzen. Enekin hitzegin nahi baduzu, aurrez, funtsezko gauza batzuk onartu behar dizkidatzu.

– Ni gizon bat naizela zu bezala. –Ene hizkuntzak zurea balio duela, baina ondorio guziekin. –Herri batek bestea balio duela. –Eta enetzako ez duzula nahi zuretzako nahi ez duzunik, onar ezazula. Baldin frantses askok bezala guzi hau ez baduzu onartzen, ez dut zuri ezer esatekorik. Horiek gizakien deretxoak baitira».

Ez dut gehiago onartzen biolentzia eta horrelakoak esplikatzen aritu beharrik. Gu omen gara indarkerian ibiltzen garenok! Ez jauna! Zuek zarate bortizkerietan zabiltzatenak, ez bait gaituzue errespetatzen gure deretxoan.

P. y H.: Itzul gaitezen igarora. Zuen herrian eta zure haurtzaroan irratirik ba al zen? Entzuten al zen?

R.I.: Gutxi entzuten zen. Gerla denboran berri batzuk entzuten ziren Londresetik baina etzen irrati asko.

P. y H.: Eta kazetarik irakurtzen al zen?

R.I.: Gutxi ere. «Euskalduna» ailegatzen zen, baina hori alemanen aldekoa zen. Indarraren aurrean apaltzen ziren apezak ziren hor sartuak. Erresistentzia etzuten aipatzen. Denak Petain-en aldekoak ziren. Gero, gerla finitzean, «Herria» agertu zen.

P, y H.: Zure gurasoak nongoak ziren?

R.I.: Hori polita da esateko. Duela zenbait urte LEWIN amerikano jakintsua etorri zen euskal odolaz estudio batzuk egitera. Bere estudiorako euskal tipikotasuna gehien edo hobetoen gordetzen zuten herriak aukeratzen ibili ondoren Makea eta Ahetze ikastea hautatu zuen. Ba, nere aita Makearra zen eta amaren aita Ahetzekoa. Ez naiz arrazista baina humorearekin gauza hori hartuta, sustrai onak ditudala pentsatzen dut.

LEWIN horrekin egon nintzen eta kontatu zautan nola Makean andere zahar bati esan zion bere odola analizatu nahi zuela. Eta, dena esplikatu ondoren emaztea ixilik zegoela eta bere aurpegiko espresioarengatik ez zegoela konforme iruditu zitzaiola. Halako batetan, andere zahar harek esan omen zion: –odol emate hau behartua al da? Eta Lewin-ek ihardetsi ziola: ez, ez, ez zara batere behartua. Orduan, konforme naiz, esan omen zion andereak. Lewini asko gustatu zitzaion historio hori: libro bai, behartuta ez!

P. y H.: Euskal Herrian ezaguna zara kultur gizon bezala, kantu egile bezala batez ere, zerk bultzatu zinuzen kantuen egitera?

R.I.: Ni honera (Zuberoara) etorri baino lehen Uztaritzeko Seminarioan irakasle nintzen. Eta garai hartan, hain zuzen, Monzonekin batera,

"Cerca del caserío donde yo vivía era el paso habitual de huídos de Euskadi Sur que venían a refugiarse en Euskadi Norte. Para nosotros éstos eran euskaldunes y no españoles"

Piarres Larzabalen Matalaz antzerkia muntatu nuen. Ba, gauza hori, eskandala izugarria izan zen. Zeren, agerraldi batean, Matalaz (Xanpun bertsolariak egiten zuen) kate lodi batzuekin estekatua agertzen zena, apezpikuaren aitzinean (Donibaneko Arregik egiten zuen XVIIgn mendeko buztan luze, jantzi eder batekin) elkarrizketa gogor batetan ipintzen bait genuen. Honela jarduten ziren: apezpikuak Matalazi esaten zion Frantziako errege ospetsuari obeditu behar ziola eta Matalazek apezpikuari esaten zion bere kontzientziari obedituko ziola. Jendeak, berriz, Matalazen esanei txalo jotzen zien eta apezpikuarenei, aldiz, txistu egiten zien. Pentsa, ni Monzonekin pieza hori zuzentzen eta Sokoako apeza guzi horren egile! Zer eskandala! Diozesiko kargudenek deitu ninduten, esanez, oso balio haundiko nintzela eta Zuberoan ni bezalako bat behar zutela. Baina, betidanik, itsas hegiko apezentzat Zuberoara igortzea kastigu bat izan da. Halere, neri ofizialki ez zidaten horrenik esan...

Geroztik, hemen nago Zalgizeko etxe honetan. Hain zuzen, azaroa izan zen hemen sartu nintzanekoa. Etxea garbitzen hasi nintzelarik, ganbaran zazpi arratoi hilak atxeman nituen. Konponketa lan hortan ari nitzela ere egun batez Eperre kanlonjea etorri zen ni bisitatzera. Hain zuzen, lurrean makurturik zurua igurtzen ari nintzen. Eginkizun hortan ikustean, gaixua! bihotzetik esan zautan. Halere, beti pentsatzen nuen ni baino gaizkiago zirenak ba zirela euskaldunen artean. Francoren gartzeletan eta horrela zirenetan pentsatzen nuen.

Zuberora ailegatu eta berehala meza batzuek emateko eskea izan nuen eta presezki ni etorri baino sei hilabete lehenago urkatu zen gizon baten aldeko mezak ziren. Eta egun haietan berean beste gizon batek ere bere buruaz egin zuen. Geroxago beste bat Barkoxen, eta Larrainen beste bat, eta horrela, gelditu gabe urkatzen zela jendea jabetu nintzen. Hori zela eta, nere lehen kanta egin nuen. «Ez gal gure odol beroa bizi bedi gure Zuberoa» dioen kanta, alegia. Kantaren bidez nolabaiteko esperantza komunikatu nahi nien Zuberoako jendeei.

P. y H.: Zenbat denbora da kanta hori egin zenuela?

R.I.: Hamabi bat urte. Eta ezagutzera ematerako eginak ere badu bere historia. Gregoire Eperreri agertu nion eta oso ona zela esan zidan. Eta bistan dena, kuraia haundia hartu nuen. Baina, hori baino zihurtasun haundiagoa bilatzen nuen eta hortarako kanta zahar bat zela esanez artzain baten iritzia jakin nahi izan nuen. Honela, artzainarengana joan eta kantatzen diot. Entzutean, artzaina ia nigarrez hasi zen. Hori ikusteak, hots, bere bihotza unkitu nuela, profesor haundi baten onesteak baino kontentago utzi ninduen. Handik laster, Altzaiko maskarada ibili zen eta heurenganatu eta kantatu nien ene kanta. Haiei ere asko gustatu zitzaien.

P. y H.: Hori lehen kantari buruz, eta gaineatikoez zer?

R.I.: Bigarrena, hamabi urteko mutiko batentzat pentsatua izan zen. «Oriko txoria» deitzen den kanta, alegia. Zuberoako problemak aipatzen ditu horrek ere.

P. y H.: Oso musika polita du kanta horrek.

R.I.: Bai, asko kostatu zitzaidan bilatzea. Zerbait xinplea nahi nuen. Gero, behin batean, baratzean ari nintzela (esan dezadan hori dela ene deportea) zozoak entzuten nituen bedatsian edo primaberan, eta jabetzen naiz zozo batek (ahoarekin txistua joaz sol-do-mi-do notak ematen

"Mi vocación euskaldun y abertzale se me inyectó por las piernas y las rodillas"

"Fui a la escuela cuando tenía cinco años y no tenía ni idea de francés"

ditu) egiten zuela eta beste batek (berriz ahoarekin txistua joaz do-mi-sol-mi notak eman ditu) ihardesten ziola. Hara, esan nuen orduan, horiek nere kantaren haserako notak dituk. Segur txoriek ez zirela nere kantuaren zai egongo hori kantatzen ikasteko, esan nion ene buruari. Horiek aspaldiko milaka urte hautan beti berdin ari baitituk.

Hamabi urteko mutiko horrek nere kanta hori eman zuelarik, errepika Larraintarrek egin zioeten. Oso polita izan zen! Gero, Altzaiko pastorala bukatzekoan ere eman zuten.

Hurrengo kanta, berriz, (eta beti biziari josiak dira ene kantak) Beihl kontsula ETA-koek Montoryn atxiki zutenean egin nuen. Orduan ere zerbait gertatu zen. Ba, Mauleko mutiko batzuek euskaraz kantatu nahi zuteen nahiz eta euskaraz ez jakin, salbu haietan ziren Eperreren bi lehengusuk. Bistan dena, hitzak ikasteko problemak izan genituen. Halere, mimatuz, jestuen bidez ailegatu ginen.

P. y H.: Ba, mimua eta jestua aipatu dituzu, baina, euskaldunok ez al gara hotz hortarako?

R.I.: Zuberotarrek hitzak jestuekin laguntzeko dualismo hori asko maite dute. Eta euskaldunok, eskuekin eta badugu horrelako zaletasun bat. Halere, askotan esan dut Euskal Herrian hori falta dugula. Balioko luke hortan piska bat saiatzeak. Horrela emateko pentsatua dut «Baionako subprefeta» kanta ere. Mimatu egin behar da. Hitzak jestuarekin laguntzen direnean indar haundiago bat hartzen dute. Ikasi beharko genuke.

P. y H.: Batez beste, oraindainokoan, zenbat kanta dituzu eginak?

R.I.: Pastoraletarako egin ditudanekin hogeita hamarretik berrogeira. Gainera, original idatziak gorde egiten ditut noizbait publika litezkela pentsatuaz.

P. y H.: Eta ez al zara pastoral bat egitera animatzen?

R.I.: Pentsatua dut, nik edo beste norbaitek, baina, Etxahun Iruriren bizitza pastoralean eman behar litzakela. Ba dakizu nahiz eta idazteko doaina ukan, inspirazioa 2% izaten dela eta traspirazioa 98%. Egin, egin behar da! Bestalde, Etxahun Iruri hain gizon gozo zelarik eta denekin ongi egoten zekielarik, nor jarri pastoral hortan turko bezala? Eta turkorik ez bada pastoral batek gatz guzia galtzen du. Turkoak baitezpadakoak dira, bada. (azken frase hau parrez esan digu).

P. y H.: Eta erromanik edo horrela ez al duzu idatzi izan?

R.I.: Beno, gauza txiki batzuk. Ipui batzuk, alegia. Bat, maskaradetan kantiniersa bezala beti lan egiten zuen gazte bat hil zelarik, kantiniersa sujeto zuena izan zen. Gero, ba dut beste bat ideolojien kritika modura egina. Ba dakizu, katolizismoa, komunismoa, kapitalismoa, leninismoa eta abarrekin diskusio ikaragarriak ematen direla, herri bat galtzen ari den binbitartean. Hitz ederrak eta xarmantak, baina gure behar gorrientzat erremediorik ez!

P. y H.: Artikuluak ere idazten dituzu, esango al diguzu zein kazetetan argitaratzen dituzun?

R.I.: «Enbatan» agertzen ditut gehienak. «Herrian» ere bai, baina, hor ba dut problemarik. Ez dakit zenbat aldiz saiatu izan naizen gauza gogor batzuren esaten baina ez dizkidate argitaratu. Orduan, orain Enbatari ematen dizkiot.

P. y H.: Irratian ere entzuten zaitugu?

R.I.: Bai, ia egunero egiten dut zerbait. Gatz piperrekilako gauza batzuk. Ba dakizu, hori egingo ez banu zenbaitek eri naizela edo pentsatuko bait luke.

P. y H.: Joan bazinen joan, iruditzen zaigu, Zuberoa zure pertsonalitatea-

"La Iglesia elabora grandes teorías cuando se trata del sudeste asiático, el Salvador o Polonia, pero jamás dice nada sobre la situación de aquí"

ren bilakaeran garrantzizko gertatu dela. Zuk ongi ezagutzen duzun Zuberoako laborari baten eguneroko bizitzaz zerbait esango al diguzu?

R.I. Beharbada, kontutan hartzen ez bada ere, laborari etxe batetan momentu honetan gertatzen ari dena zera da: mekanikak ba dituzteela baina etxeak hustu direla, hots, lehen baino beso gutiago dagoela lan egiteko. Hortik laboraria inoiz baino itoago egotea, lanpeturik. Beltz bat bezala lanean aritu beharrean aurkitzen da aurrera joateko. Bistan dena, laborariak ez du ezer irakurtzen. Irratia, bai, entzuten du. Baina ez du denborarik kultura gauzetan okupatzeko. Maskaradak eta egiten direla, baina beti herri berak dira. Ez da ilusiorik egin behar. Gainera, Zuberotar askok ez daki, ez du konprenitzen zer aberastasun den hori. Neuk ikusia kontatuko dut exenplu bezala. Alde batetik, zuberotar batzuk sekula ez dira pastoral edo maskarada bat ikustera joan ere. Hori bai, pastorala edo maskarada ematen den lekuaren ondoan ostaturik bada batzuk han egongo dira edaten, eta berotuko direlarik, bubuka hasiko dira pastoraleko edo maskaradako aktoreak bertsotan hasiko direlarik. Eta batzutan giroa arrarotzera ere heltzen dira. Horrelakoak berrogei edo berrogeita hamar urte ingurukoak ohi dira. Argelian eta frantses kolonietako gerletan ibilitako medailadun horietarikoak dira. Horientzat euskal kulturak ez du deusik balio. Parisko Olypiatik igarotzen direnak, edo Rollings Stones bezalakoak dira horien mitoak. Halere, adineko jendeak oso ixilik eta atentzio haundiarekin segitzen du. Baita gazte gazteak ere. Hauek, batzutan, euskaraz ere ez dakite ongi, baina liburuarekin segitzen ahalegintzen dira.

Bestalde, laborari batzuk Bordelekoei eta lurrak saltzen hasiak dira.

Eta langile purrukatu direnen artean ere ba da problemarik, zeren batzuek material gauza bakarrik ikusten dute. Euskal Kultura eta horrelakoentzat ez dute denborarik. Horiek ez baitute sosik ekartzen, zeren, frantses kulturak eramaten baitu ekonomia, horientzako euskal kultura gauza zaharkitua da.

P. y H.: Halere, esan duzu gazteak euskal gauzetaz interesatzen berriz hasten direla. Zer dira zuberotar gazteen arrangurak?

R.I.: Beno, Baionako katedralean lau gosegrebalari egon berri dira. Ba, horietariko hiru zuberotarrak ziren. Gauza horrek ba du adierazpenik, ikusi nahi duenarentzat.

P. y H.: Bai, harritzekoa ere bada, dakigunean ikastola gehienak Lapurdin egonik, lapurtarrik ez dela gose grebarako eskaini, eta aldiz, hiru zuberotar eta napartar bat izan direla euskal historian zehar euskararengatik egin den lehen gose greban parte hartu dutenak.

R.I.: Gazteetan kezka haundia ageri da. Lehenago fatalistak ziren. Gauzak horrela dira eta diren bezala onartu behar izan, eta kanpora joaten ziren lan bila. Orain, aldiz, ez dute lur hau utzi nahi. Neuk ikusi izan ditut gazte batzuk negarrez, joan beharrean aurkitzen zirelako. Beraz, zerbait aldatu da.

Gainera, denbora gutxi barru, Basa burian, kooperatiba bat irekiko da eta hori sinbolo bat da Zubero guziarentzat. Eta hori ongi joaten bada, besteak ere animatuko dira. Ez dute gehiago onartzen kanpora joatea, hemen gelditzeko ahaltasun guziak ikusi gabe.

P. y H.: Euskal kulturaren munduan, nolabait Zuberoa aipatzean denean, beti ditugu hiru erreferentzia: bere abesti menditarrena, pastoralena eta dantza deigarriena. Nola ikusten duzu horien portaera?

R.I.: Lau, bots urtetaraino pastoralik ikusi gabe egotea tokatu zait. Honekin, geroz eta nekezago ateratzen direla esan nahi dut. Eta hemendik aurrera ez dakit ateratzen jarraituko diren. Zeren pastorala herri batek herri bezala egiten duen esfuertzo haundi bat da lehenik. Eta Zuberoan herriak geroz eta txikiago dira, estuago alegia. Beharbada, etorkizunean, hiruzpalauherriren artean egiten ahalko dira. Halere, ez da herri bakar batek egiten duenean bezala izango. Zeren pastoral batek ba du horrelako batasun bat. Beharbada ere, eta nik espiritua letra baino gehiago estimatzen dut, lau ordukoa izan beharrean, laburrago izanez iraun dezake. Zeren, lehen ere, ezpalitza aldatu fosilizatua geldituko zen. Eta ez, hor da bizirik oraino. Baina, eboluzione hori ez da bortitzegia izan behar, habilki egin beharko da. Hala nola pastoral batetako kantak herrikoak izan beharko dira aireetan, nahiz eta hitzak aldatu. Ez dut uste rok eta horrelako sonorizazio animaliekin joango litzakenik. Ba dakit gazteek asko maite dutela roka, eta dezibelioak ere. Ez dut konprenitzen! Esan didate, hor Parisetik Rollins Stones horiek pasatu direlarik, gazte batzuk plazer zutela tinpanoak zulatu zitzaiela esatea. Ez dut konprenitzen! Beharbada, denek belarriak zulatuak izango dituztenean beste mundu bat sortuko da edo ez dakit... Zernahi gisaz pastorala beste gauza bat da.

P. y H.: Zure ustez, orduan, pastoralaren eboluzioa gaien bidez eman behar da?

R.I.: Ene ustez pastoralak molde ona eskaintzen du antzerki batentzat. Erreza da ibilarazteko. Batere ez dakienak ere laster molda dezake. Gaiak aldatu egin behar dira. Ez da posible beti Abraham, Godofredo, Karlomagno eta horrelakoekin ibiltzea. Hortan klar dago muga bat igaroa dugula. Gehiago ez gintake ibil Napoleoni ohoreak eskaintzen. Orain atzetik begiratuta nazkagarriak ageri dira pastoral batzuetako gaiak. Frantziako heroei laudorioak ematen zitzaien. Orain denok dakigu Napoleonek Europa osoa masakratu zuela. Hori aberrazio bat da. Gure zapaltzaileei ohoreak egin.

P. y H.: Eta dantzetaz zer diozu?

R.I.: Aldaketak etorri behar direla ere. Aidibidez. Ba dakizu nola Sakramentu Santuaren aitzinean dantzatzen den. Herri guzia trajetan ematen da soldadoen trajeekin eta militarkeri bat muntatzen da. Hori iraunaraztea ezinezko da. Gauza batzuk aldatu egin behar dira.

Bestalde, lehen fedea kanpoz eta azalez bizitzen zen. Hortik prozesioak, erropa ederrekin jaztea, loreak botatzea eta abar. Horiek denak kanpoko itxurak ziren. Ez dut esaten begien bazkarik behar ez denik, baina kontuz ibili behar da. Lehen fedea bera triunfante gauza bat zen. Orain nik nahigo dut bihotzean bizitzen dena. Festa, berriz,

---

Sacerdote de cuarenta y cinco años que hoy mantiene, fundamentalmente junto a su labor pastoral, una labor de militancia popular íntimamente ligada a la situación de Euskadi Norte.

Roger Idiart, proveniente de una familia de Azkaine, afirma que cuando fue a la escuela, apenas cumplidos cinco años, él «no tenía ni idea de francés». Por otra parte, como habitante cercano a la frontera, conoció directamente el paso de huidos de Euskadi Sur en busca de refugio a Euskadi Norte, «a los cuales –dice– nunca los consideramos españoles, como ocurre en muchos casos, sino euskaldunes». Este extremo hizo que Idiart mantuviera siempre un contacto directo con los refugiados de Euskadi Sur.

Nada más cumplidos los once años, Idiart fue internado en el seminario de Ustaritze, de donde saldría años después tras ser ordenado sacerdote. Alumno aventajado de Pierres Lafitte, a quien confiesa profesar una gran admiración, sobre todo en aquella época de estudiante seminarista, comenta de él que «no nos hablaba de abertzalismo, pero sí de los euskaldunes y del euskara».

De su experiencia como sacerdote y miembro de la Iglesia cuenta que «tras una experiencia castrante en el seminario, donde estaba absolutamente censurado –afirma– todo lo que se refiriera al euskara, no había más medios de expresión que el francés y el latín».

La realidad que posteriormente ha ido descubrieno le «reafirma en la conclusión de que la Iglesia está íntimamente ligada con el poder».

Asimismo afirma con respecto al euskara que «la Iglesia, por oficio, es conservadora, por eso conservó el euskara. Toda vez que la gente lo hablaba, era más fácil conservarlo que marginarlo». «Con esto no quiero decir –puntualiza, sin embargo– que los curas de mi época hayan sido abertzales, que no lo eran». «Eran –añade– franceses, se comportaban como colonizados. Incluso nosotros –confiesa– no éramos conscientes.

Para mí representó un gran choque, positivo, desde luego, el primer encuentro que tuve con la revista 'Enbata'. Descubrir –manifiesta–, una revista que en aquél tiempo era clandestina, para alguien como yo que había vivido el contrabando como habitante de frontera, con todo el excitante misterio que eso implica, a la vez que descubrí que el padre Lartzabal de Zokoa estaba también en el tinglado, fue definitivo para mí».

Idiart sufriría en su propia carne las consecuencias de su condición de sacerdote y militante comprometido con su pueblo. Las autoridades eclesiásticas lo relegaron a un pueblo de Zuberoa, Zalgize, donde se encuentra en la actualidad, como castigo solapado, «aunque a mí nunca me lo presentaron así» –afirmaría–, por un pequeño «incidente» ocurrido durante la representación de una pastoral, «Matalaz» escrita por el padre Lartzabal. En esa pastoral –relata– hay dos perso-

→

Sakramentu Santuaren aitzinean izugarrizko espantuak egiteak ez du zentzurik, gero eguneroko bizitzan elgarren kontra herrietan bizi diren herrak daudenean eta frantses politika horrekin zakurkeriak eta zikinkeriak egiten direnean.

Beharbada, kritika bat da egiten ari naizena, baina nik horrela ikusten dut.

P. y H.: Zenbateraino bizi da euskara gaurko Zuberoan?

R.I.: Zuberoko herri guzietan hogei hogeita bost urtez goitiko jendea, kasik dena, euskaraz ari da eta euskara ederrean gainera. Ni xoratuta egoten naiz Zuberoako hitz moldearen aitzinean. Asko ikasi dut hemen! Ba dakite euskara!

Gero, telebistarekin, gaztetxoen egoera besterik da. Telebista den arma absoluto horrek dena puskatzen du. Oraingo ume batzuek eskolan baino denbora gehiago pasatzen baitute telebistaren aurrean. Frantzian egindako inkesta batek konfirmatu du hori. Gure ume askok ere horrela egiten du. Nik kateximarako ene autoan hartzen ditut ume batzuk. Eta nik egun on esaten badiet ere, heurek, Bon jour ihardesten didate. Eta kasik segituan telebistan ikusi duten azken filmaz hitzegiten hasten dira. Orduan, ume horien espiritua goitik beheraino hartu da. Herri gehienetan, urte horietako umeak frantsesera jo dute. Eta zerbait egiten ez bada, ikastola edo puñeta zerbait, galduak gara. Halere, eta hau berria da, euskara galdu dutenak eta berriz ikasten hasten direnak ba dira.

P. y H.: Gurasoetan euskarari buruz zer ikusten duzu: ba dute orgullurik euskararentzako ala eta ez zaie axola?

R.I.: Nik uste dut hemengo kazeta eta irrati frantsesek kartel haundi bat egiten dutela euskarentzat. Amalgama bat egiten baitute bonbekin, metrailetekin eta abar josiaz. Ba, politika, manifestaldia, eta euskara, dena nahasten baitute. Exenplu txiki bat emango dut. Urtarrilaren seiean, Eclair Pyrénées egunkariak lehen paia titulo nahiko haundiekin honela aurkeztu zuen.

Lehenik zera zion: «Un industriel basque enlévé par l'ETA». Eta bigarrenik lehen albistearekin lotuta beste hau zion: «l'association Lauburu vient de publier un livre sur la danse basque». Heurek ba dakite jendeak pakearen kezka oso barrenean duela. Baina nik ez dut hori dramatizatu nahi. Hori txarra bezain ona ere baita. Zeren askok euskal gauzetan sinismena galdua du baina beldurrak eragiten du. Eta nik beti esaten dut, adibidez, bihar goizean irratia piztu eta entzungo bazenu, Euskal Herriak independentzia lortu duela, zer egingo zenuke? Orain gordetzen den jende hori Frantziaren alde burrukan hasiko al litzake? Segur nago errepostua ez izango litzakela.

---

najes, el propio Matalaz y un arzobispo. El segundo le exhorta al primero a que debe obedecer al rey de Francia, a lo que el segundo le replica que será a su propia conciencia a quien obedecerá. Y he aquí que los espectadores de la representación no hacían más que abuchear cada vez que hablaba el arzobispo en cuestión y aplaudir las intervenciones de Matalaz». «Esto no pudieron asimilarlo —comenta— mis superiores y me dijeron textualmente: Eres un hombre de gran valía y se necesita alguien como tú en Zuberoa. En aquella época yo ejercía de profesor en el seminario de Ustaritze y ser destinado a Zuberoa se consideraba como medida de castigo».

Roger Idiart ha sido sin embargo, desde que comenzara su «castigo» en Zuberoa, un incansable combatiente, más, si cabe, que en épocas anteriores, que no ha excusado ningún frente de labor. De ser un hombre inevitable en todo movimiento político y social de Zuberoa, sin descuidar su labor de sacerdocio —«cuento con pocos feligreses como parroquia, afirma, pero he tratado de ser de toda Zuberoa a través de toda mi actividad cultural»— ha destacado además como un prolífico activista en el campo cultural. Desde la danza, de cuya práctica y actividad él rechaza toda acusación peyorativa de folklorismo —«a mí se me inyectó el abertzalismo y la conciencia euskaldun por las piernas y las rodillas», —afirma— hasta posiblemente las cuarenta canciones que ha ido componiendo, pasando por las ikastolas, las pastorales, clases de euskara, emisiones de radio y artículos periodísticos en 'Enbata' fundamentalmente.

Canciones como «Baionako suprefeta...», «Ez gal gure odoel beroa...», ahora ya lo sabemos, son obra suya.

Sobre el futuro de la pastoral como representación teatral, Idiart mantiene que «la pstoral presenta unas condiciones óptimas para ser representada, pero hay que cambiar la temática. No podemos pasarnos toda la vida haciendo propaganda gratuita a Napoleón, que no ha sido un vulgar masacrador, ni hablando de Carlomagno, Abraham o Godofredo... tenemos que hablar de cosas más actuales».

Idiart es hoy la referencia ineludible en Euskadi Norte, que no pasa inadvertida ni siquiera a la prensa francesa. En una reciente visita de un periodista francés, ésta sería la respuesta de Idiart: «Estoy cansado de buscar argumentos para defender la causa vasca. Si quieres hablar conmigo, antes deberás admitir una serie de presupuestos: primera, que yo soy un hombre igual a tí; segundo que mi lengua tiene tanto valor como la tuya, con todas las consecuencias; que un pueblo tiene el mismo valor que otro y por fín, que no desearás para mí lo que no desees para tí.

Si, al igual que muchos franceses, no eres capaz de admitir todo esto, no tengo nada que decirte, puesto que todos esos puntos no son más que derechos humanos. No admito tener que explicar una vez más cuestiones referidas a la violencia. Por lo visto somos nosotros los que ejercemos la violencia! pues, ni hablar, sois precisamente vosotros, los franceses, quienes la ejerceis, puesto que no respetais nuestros derechos.

TARJETA DE SUSCRIPCION

PUNTO Y HORA
DE EUSKAL HERRIA

TARIFA ANUAL

ESTADO ESPAÑOL
Correo ordinario 4.800,-Ptas.

EUROPA
Correo aéreo 6.700,-Ptas.

RESTO PAISES
Correo aéreo 8.300,-Ptas.

D. .....

Profesión ..... Teléf. .....

Calle o plaza ..... N.º ..... Piso .....

Población ..... Provincia .....

☐ Desea una SUSCRIPCION ANUAL según tarifa al margen.

DOS UNICAS FORMAS DE PAGO PARA EL ESTADO ESPAÑOL

1.ª ☐ Talón adjunto a: ORAIN, S. A. (PUNTO y HORA)

2.ª ☐ Giro postal a: ORAIN, S. A. (PUNTO y HORA)

Apdo. Correos 1.397 - Teléfono 55 47 12 - SAN SEBASTIAN

FORMA DE PAGO PARA EL EXTRANJERO:

Cheque Bancario en pesetas:

SEÑALE CON UNA X LOS CUADROS QUE LE INTERESAN
ENVIAR ESTA TARJETA CON LOS DATOS RELLENADOS EN MAYUSCULAS A:

ORAIN, S. A. (PUNTO y HORA)
Apdo. 1.397 - Teléfono 55 47 12 - SAN SEBASTIAN



Aldizkari honi lagunduz, harpidedun eginez, zeure kulturari laguntzen diozu: euskal kulturari.

Bere historia osoan JAKIN beti ahalegindu da, eta gaur are gehiago ahalegintzen da, tresna bizia izaten euskal kulturari bultz egiteko eta azterketak bizkortzeko. Arintasuna eta sendotasuna bilatuz, egunekotasuna eta seriotasuna elkartuz, edozein arazotan sakontasuna lortu nahi du JAKINek.

Hori dena aski arrazoi da, gure ustez, zure laguntza itxaroteko, eta harpidetza txartela bete dezazula eskatzeko.

Gure hitza ematen dizugu: harpidedunen ugaritzeak ekar lezan irabazi oro aldizkaria hobetzeko izango da oso-osorik.

HARPIDETZA TXARTELA

JAKIN aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena ..... Herria .....

Kalea ..... Tel. .....

Gurutze (+) baten bidez adierazten dudan eran egingo dut urteko ordainketa (1.200 pta.)

☐ txeke bidez ☐ renboltsoz ☐ nire Banku kontuaren bidez (bete beheko zati hau)

Banco o Caja de Ahorros ..... Banku edo Aurrezki Kutxa

N.º de cuenta / Kontuaren zenbakia .....

Sucursal / Sukurtsala .....

Titular de la cuenta / Kontuaren jabea .....

Entitate horretako nire kontuan zorpetu itzazue, mesedez, JAKINek nire izenean aurkez diezazkizuen errezibоak. Agur.

Sírvanse adeudar en mi cuenta con esa entidad los recibos que a mi nombre les sean presentados por JAKIN. Atentamente.

Firmado / Zinatzailea .....

Domicilio / Helpidea .....

JAKIN - Ategorrieta hirib., 23 - DONOSTIA (13)